

## Eraso! taldea

Emanaldia egin zuen  
Arrasateko 3.60n  
KULTURA, 26



## Aloña Mendi 1-0 nagusitu zaio UDARI

Mondrak 1-0 galdu zuen zapatuan  
Mutriku taldearen kontra  
KIROLA, 14-15

## Yllana taldea

Bigarrenez bete zuen  
Elgetako Espaloia  
KULTURA, 24



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko otsailaren 6a • 2. urtea • 88. zenbakia • 0,90 euro

## Larru-ontze eta uhalgintza zentroa egongo da Antzuolan

*Tellerianeko eraikinean egin nahi dute interpretazio zentroa, Diputazioaren laguntzarekin*

Gipuzkoako Foru Aldundiak 125.000 euroko laguntza onartu dio Antzuolako Udalarari herrian hainbesteko arrakasta izan zuen larru-ontze eta uhalgintzaren gaineko interpretazio zentroaren egitasmoa gauzatzeko. Aurten 90.000 euro jasoko dute lan horretarako. Egitasmoak materiala batzea eta lanbideak erreproduzitzea aurreikusten du. **2-3**

**HELBURU BIKOITZA**  
Larru-ontzea eta uhalgintza nola egiten ziren erakutsi nahi dute zentroarekin

**LAU LANTEGI HERRIAN**  
205 urtez iraun zuten larru lantegiek Antzuolan. Lau larru-ontze eta zurrategi lantegi egon ziren herrian



MAIDER ARREGI

Goienako hainbat langile aurkezpenaren ostean egindako luntxean.

## Lagun asko 'Goienkaria' jaian

*Debagoiendar askoren babesarekin aurkeztu zuten astekari berritua* **4-5**

**Haurrei lehen sorospenak egiteko tailerra antolatu dute Oñatin** **11**

**Esker ona jaso du Iñaki Galparsorok**

*Ia 40 urteko lanarengatik omendu egin dute parrokoa Gesalibarren* **8**

**Lapurdira joan da amodiozko gutunen saria**

Karlos Aizpurua 34 urteko sarrararak irabazi du Amodiozko Gutunen XIV. Berrigara Lehiaketa. Itsaso izeneko neska batek -BECeko saioaren ostean izan zuten maitasun saioa ezin burutik kenduta- Andoni Egañari idatzitako gutunarekin jaso du saria. Epaimahaiak nabarmendu ditu, besteak beste, gutunaren gaurkotetasuna eta erabilitako elementu guztien freskotetasuna. Horrekin batera azpimarratu dute ondo burututako joko-ariaketa bat dela. 112 gutun jaso dituzte aurten antolatzaileek. Gutunen kalitateari dagokionez, epaimahaiak azpimarratu du irabazleen eta finalisten maila altua.

Sari ematea, ohi bezala, otsailaren 14an, San Valentín egunean, izango da. **22-23**



JOSETXO ARANTZABAL

## POLTSIKOAK BETE DITUZTE KINTOEK ASTEBURUAN

Egunean zehar santa eskean ibilita, eztarriak bero eta poltsikoak beteta, dantza eginez amaitu zuten Eskoria-tza eta Aretxabaletako kintoei atzo Santa Ageda eguna. Oñatin ere entzun ziren martiriaren koplak, ia 80 gazteren ahotsetan. Lehenengoz, gainera, neskak batu zaizkie kantuan Oñatiko kintoei (irudian). **6**



# GEUREAN

- Ongietorri beroa egin diete Gaizka Olabarrieta eta Gorka Aztiriari | 7
- Zapatuan zabalduko dute Antzuolan gazteendako aisialdi lokala | 11



Elgetako alkate Patxi Basaurirekin jardun dugu alkatetzan daraman 30 urteez | 10

## LARRU-ONTZEA ETA UHALGINTZA ANTZUOLAN

**LARRUGINTZA** | DIPUTAZIOAK 125.000 EURO EMAN DIZKIO ANTZUOLARI LARRU-ONTZEA ETA UHALGINTZAREN ETNOGRAFIA EGITASMOA BURUTZEKO

# Lehen lanbide industrialaren memoria berreskuratuz

*1999an hasi zen prozesuarekin jarraitzeko aukera eman dio Diputazioak Antzuolako Udalari*

Marijo Deogracias

Gipuzkoako Diputazioak 125.000 euroko diru-laguntasuna eman dio Antzuolako Udalari, larru-ontzea eta uhalgintza lanbideen memoria historikoa jasotzeko. Aurretik hasita ziren Antzuolan lan horretan, baina onartutako laguntza "erabakigarria izan da proiektuarekin jarraitzeko. Material askorekin topo egin dugu eta guztia katalogatu, atondu eta erakusteko leku bat lortzeko erabiliko da dirua", azaldu digu Iñigo Ramirez de Okariz historialari eta kultura zinegotziak.

Irailean Telleria lantokiko uhalgintza tailerrean zegoena erreperatu zuten -40 urtez itxita egon ostean-. Gipuzkoako larru tailer bakarra da. Zegoenarekin -gerrikoak, poltsak, uhalak, diru-zorroak, armadarako materiala (obusak eramateko motxilak, kartutxoak eta armak eramateko zorroak...), diru-kontuak, josteko eta zuloak egiteko makinak, patroiak... - eta aurretik batutako hainbat materiale-

kin, larrugintza lanbidearekin lotutako gune, zentro edo museo tankerako erakuslekua sortzeko egitasmoa indarberritu egin da. "Ikertzaileei zuzenduta, artxibo erabilgarria jarri nahi da han, bai eta gaiarekin lotutako liburutegi osatua ere. Ohiko museo espiritu berritzaileekin bat eginez, larru-ontzearekin lotutako dokumentazio eta interpretazio gunea izango da eratuko duguna, baina ez da museoa izango", azaldu digu Iñigok. Lekurik aproposa Telleriaren tailerra egon zen lekua litzateke. Hori uste dute udalean. Dagoeneko ari dira Telleria sendiarekin hartu-emanetan, Telleriarrak etxebizitzak egitera doaz lehengo eraikinean eta zentroa begi onez ikusi dute.

**125.000 euro eman dizkio Diputazioak Antzuolako Udalari proiektua egiteko**



JOSETXO ARANTZABAL

Buztinzuri kaleko 15 eta 16 zenbakietan dagoen etxean egin nahi dute interpretazio zentroa, Tellerianekoan.

### AURREKARIAK

90eko hamarkadan itxi zen azkeneko larru lantegia, plastikoaren bultzadak, nekazaritzaren kri-

sialdiak eta berrikuntza teknologiek eraginda. 1998ko uztailaren 4an Zurrategi auzoan lanbidearekin lotutako eskultura inauguratu zen. Ordukoa da argazki zaharrek eta larrugintzako erremintekin osatu zen erakusketa ere. Handik dator orain gauzatu nahi den ideia. 2006ko udal aurrekontuetan 3.000 euro aurreikusitako lan etnografikoarekin jarraitzeko, eta orain jasotako laguntzari esker, Udalaren asmoa

gauzatzen joateko azkeneko bultzada etorri da. Asmoen artean Foruan (Bizkaian) dagoen larru ontzeko tailerrean lanbidea erreproduzitzeko irudiak hartzea aurreikusten da, "Gipuzkoako kultura ondareari eskaintzeko larru-ontze eta uhalgintza jarduerarekin lotutako gune bat, larru lanketaren prozesua nolako zen ikusteko eta eskuz larrutik ateratzen ziren produktuen prozesua ezagutzera emateko".

**"Ikertzaileendako artxibo erabilgarria eta liburutegia izango ditu guneak"**

### • TELLERIANEKO LANTEGIAN IAZKO IRAILEAN HARTUTAKO IRUDIAK



**PRODUKTUAK.** Era guztietako uhaleriaz gainera, esku-ko mailetak, karpetak eta poltsak egiten zituzten Industrias Telleria lantegian. Hur eta beltz koloreko aukiak ere egiten zituzten txahal larruz.



**PATROIAK.** Era horretan laga zituzten produktuak egiteko patroiak Telleria lantegian. Enpresa itxi zenean horrela laga zituzten zurrategiko lan tresnak. Irudikoak lantegian egiten ziren produktuen patroiak dituzue.



**LARRUA.** Irudikoak Tellerianeko zurrategiko larruak dituzue, baina Gipuzkoan baziren larrugintzan aritzen ziren beste batzuk ere. Bergaran eta Oñatin aker larruak ontzen ziren eta Arrasaten, berriz, zola eta behi larruak.



LARRU-ONTZEA ETA UHALGINTZA ANTZUOLAN

ANTXON AGIRRE SORONDO | 'ANTZUOLAKO LARRU-ONTZEA' LIBURUAREN EGILEA

# "Poetikoki esanda, Antzuolako uhalek ematen zieten mugimendua Gipuzkoako industriei"

M.D.

**Antropologia eta etnografia lanetan aritzen da Agirre Sorondo eta bere zaletasunak bultzatuta egin zuen, Antzuola herria III. ikerketa bekaren barruan, larrugintzaren gaineko ikerketa lana.**

**Nolako izan zen Antzuolako larrugintzaren gainean egin zenuen lana?**

Lana egin nuenerako Antzuolako larrugintza hilda zegoen, baina nire zortetarako, jardun horretan aritu zirenen testigantzak jasotzeko aukera izan nuen. Hori oso garrantzitsua izan zen zurrategia eta larru-ontzearen berezitasunak batzeko orduan.

**Liburuan diozu Antzuola egokia zela horrelako jardunetarako. Zergatik?**

Hasteko eta behin, jardun horren alde egin zuen familia bat izan zelako han. Baina horrez gainera, ur asko behar duen jarduna denez, Antzuola egokia zen

horretarako, ur-emari asko dituen herria delako. Eta, bestetik, larru-ontzea asko kutsatzen duen jarduna izan arren, ez zen Antzuolan arazorik sortu alde horretatik, herri txikia zen eta. **Lau larru enpresa egon ziren Antzuolan. Lehiakortasuna ere egongo zen, ala?**

Jakina bazela. Kontuan hartu enpresatariko batzuk aurretik zeuden lantegietan aritutakoek sortu zituztela, behin lanbidea ikasi ostean.

**Emakume bat ere izan zenuen informatzaile liburua egiteko orduan. Emakumezkoen eta gizonezkoen lanbidea zen larru-ontzea?**

Bai eta ez. Lan oso sexista zen larru-ontzea eta zurrategietako



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

lana. Liburuan ere azaltzen dut nola jardunak bereizita zeuden emakumezko eta gizonezkoen artean. Emakumeek akaberako lanak egiten zituzten eta arrosarioa ere erreztatu behar izaten zuten lanean hasi aurretik.

**Larrugintza galduta dago gure artean?**

Gaur egun zurratzeaz aritzen garenean jantziez ari gara, baina orduan zurratzearen helburua transmisio uhalak egitea zen, makinendako. Hala, modu oso poetikoan, esan genezake Antzuolako uhalek ematen zieten mugimendua Gipuzkoako industriei. Hau da, zurratzeak lokarriak ateratzeko egiten ziren, eta uhalek mugitzen zituzten poleak. Era-

biltzen zen polearen arabera, uhal bat edo beste behar izaten zen. Sasoi hartan ezinbestekoak ziren larruz egindako uhalak. XVIII. mendean, esaterako, Soraluzeko arma enpresa baten txisperoak, armagilea eta medikuaz batera, zapagatile bi ere baziren. Uhalen larrua apurtzen zenean kopontzen zutenei deitzen zitzairen zapatagile enpresa hartan. Makina elektrikoak jarri zirenean, uhal haiek erabiltzeari laga zitzaion eta gain-behera etorri zen arlo hau.

**Zer irizten diozu Antzuolako Udalak larrugintzaren gainean egin nahi duen lanari?**

Gure historiaren parte da eta guk zaindu ezean galduko dena. Egitekoa da hori ere.

Badaukat, ordea, pena txiki bat nik proiektu horretan egin nuen lanaz eta zera da: liburua bakarrik euskaraz argitaratu zela. Behinola Kataluniatik deitu zidaten Antzuolan egindako lana jaso nahi zutela-eta; izan ere, han larrugintzak indar handia dauka, baina euskaraz bakarrik zegoenez, ezin izan zuten erabili.

**"Jardun horretan aritu zirenen testigantzak jasotzeko aukera izan nuen"**

**"Lan oso sexista zen larru-ontzea. Emakumeek akaberako lana egiten zuten"**

**"Soraluzeko arma enpresan ere baziren larru uhalak josteko zapatagileak"**

## Lau lantegi Antzuolan

1931n larrugintzan ari ziren 47 lantegi zeuden Euskal Herrian eta horietako lau Antzuolan zeuden. Lehenengo zurrategia 1790ean sortu zen Antzuolan; Balbino Bareño sortu zuen. Antxon Agirre Sorondok bere liburuan jaso zuenez, "1837an lapurtarrek sortu zuten zurrategia, Kanbotik etorritako zurratzaileen sendiak ziren". Hori ei da Antzuolako larrugintzaren hasiera.

Denborarekin lantegi gehiago zabaldu ziren Antzuolan. Ondarre auzoan esaterako, Lamarianotarrek zabaldu zuten herriko bigarren zurrategia, 1880. urtearen bueltan. Geroago, 1886an, izena aldatu zuen lantegiak: Oñaran, Lamariano y Compañía.

XX. mendean, Olanar Galarza Hermanos y Arbulu (1923) izenarekin ari zen hirugarren lantegi bat ere eta Fábrica de Curtidos de José Telleria ere ordukoa da.

Larru-ontzea prozesu oso luzea zen. Ur asko behar izaten zen lanerako eta horregatik bazter guztiak umel bihurtzen ziren. Horrez gainera, larrua lehertzeko aire asko behar izaten zen eta hori dela eta, aire-korrante ugari lekuak izaten ziren leku haiek; horrek langileei osasun arazoak eraiten zizkien, bronkitis eta katarro ugari. Ekoizpen prozesuan makinak sartu aurretik, lan guztia eskuz egiten zen: larrua ez usteltzeko, gatzez igurtzen zen, hiltegietatik ekarri orduko. Antzuolako larru lantegiak 205 urtez aritu ziren.

## Balbiko Bareño zurrategiko langileak, 1915. urtean

Ezkerretik hasita, Jose Arbe (eskuan larruari zimurrak kentzeko arbela duela), Candelario Elortza (astotan larruari haragia eta okelak kentzeko marraza duela), zurraderokoan bizi zen Garitano (iragazki batekin, larrua kareaz bustita putzuan zegoenean hondarrak kentzeko erabiltzen zenarekin), Ascensio Igartza (astoarekin), Pedro Jauregi (arbelarekin), Ascensio Larrañaga (arbelarekin), Felipe Elortza (egurrezko mazoarekin, larrua putzuan zegoenean astintzekoarekin) eta Meliton Arbe (makila luzearekin larrua lehortze lekuan eskegitzeko).



ANTZUOLA 1900-1970 ANTZINAKO ARGAZKIEN BILDUMA LIBURUTIK. JASOTA



'GOIENKARIA' BERRIA AURKEZTU ZEN EGUBAKOITZEAN BERGARAKO MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN




MAIDER ARREGI

Goienako lehendakari Estepan Plazaola eta Goienako administratzaile Agurtzane Gaintzarain urarekin topa egiten harrapatu genituen. Atzean Goio Arana eta Iban Arantzabal, Goienako kideak.



UXOA AGIRRE

EKTko idazkari Juan Mari Larrarte, Topaguneko lehendakari Joxemari Muxika, Arrasateko eus-kara teknikari Joxefe D. de Tuesta, Joxe Aranzabal eta Axtroki elkarteako kide Jabier Errasti.



UXOA AGIRRE

Xabier Urtzelai Goienkariako kirol kazetaria Foru Aldundiko kirol zuzendari Iñaki Ugartebururen ondoan izan zen aurkezpena jarraitzen.



MAIDER ARREGI

Idolazeko kide Jabier Etxaniz, Monika Belastegi eta Marijo Deogracias (Goiena), Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoa eta Topaguneko Joxemari Muxika.

LAGUN ARTEAN | AURKEZPENEAN AURPEGI EZAGUN ASKO ELKARTU ZIREN

## "Enaixuan uste hainbeste iraugo zebanik"

*Giro onean eta lagun askoren babesarekin egin zuten 'Goienkaria' berriaren aurkezpena. Bergaran egitera bergarar asko hurbildu zen*

M. Deogracias/M. Belastegi

Estepan Plazaolak, Goienako lehendakariak, ekarri zituen gogora berba horiek "Enaixuan uste hainbeste iraugo zebanik!", Goienkariak bideari noiz ekin zion azaltzeko orduan. Eta, ez zaio arrazoirik falta, ze, Goienkariak aurretik sortutako *Berrigara* eta *Arrasate Press*, eta *Aretxagazeta* eta *Zer Berri* eta *Kontuola* eta *Goibekokale* herri aldizkariak zor die bere bizitza. Eta, jakina, proiektuan sinistu duten guztiei. Horietako asko elkartu ziren Bergarako Miguel Altuna Institutuan

joan zen egubakoitzean. Han ziren Goienako bazkide diren euskara elkarteetako kideak, **Jabier Errasti** (Axtroki), **Mikel Arantzabal** (Txirritola), **Jabier Etxaniz** (Idolaz) eta bere emazte **Mada**, **Rafa Agirre** (Laixan), **Olatz Olaso** (Jardun), **Ander**

**Eskualdetik kanpoko gonbidatuak izan ziren ekitaldian**

**Etxebarria** (AED) eta **Edorta Arana** (Gurel). Debagoieneko udal ordezkari batzuk ere hurbildu ziren ekitaldira, tartean, Eskoriatzako alkate **Juan Carlos Bengoa** eta Bergara eta Arrasateko zinegotzi **Iñigo Iñurategi** eta **Joxe Etxebarria**. Baina ez ziren politiko bakarrak izan udal ordezkariak. Izan ere, **Rebe-ka Ubera** Aralarko batzarkidea agurtzeko aukera izan genuen; aldiz, ibarreko gazte sozialisten idazkari **Aritz Arrieta** agurtzeko gogoz geratu ginen, ekitaldia amaitu eta berehala alde egin zuen-eta. Eskualdetik kanpoko gonbidatuak ere izan ziren aurkezpen ekitaldian. *Berria* argitaratzen duen EKTko Administrazio Kontseiluko idazkari **Juan Mari Larrarte** ikusi genuen lehenengo ilaran, hizlariak entzuten, **Joxe Aranzabal** eta **Joxemari Muxika** ondoan zituela.

### • ZER IRUDITU ZAIZUE 'GOIENKARIA' BERRIA?



**DANI LARREA** | EMUN KOOPERATIBA

"Freskoa ematen du, Goio Aranak dioen moduan, garbia. Baina herriek duten pisuaz ez nago ados, Antzuolak orri bakarra dauka; oreka mantendu beharko luke".




**AITOR ARANTZABAL** | EZKER ABERTZALEA

"Edizioak kentzea aurrerapausoa ala atzerapausoa izan den ez dakit; diruaren aitzakiaz ez ote den izan. Hala ere, itxura txukuna dauka; lehen-goak ere bazuen".



**JABIER OTERMIN, FERNANDO TAPIA ETA IÑAKI UGARTEBURU** | FORU ALDUNDIA

"Ausarta" irudi zitzaion Ugartebururi eta "ASTE-LEHENKO GOIENKARIA" ere ekarri dit gogora lehenengo begiratuan". Otermini "freskoa, irakurtzeko erraza" iruditu zitzaion eta Tapiaren ustez, "mardula eta lehenago bezain ona bada, oso ona izango da hau ere".



**JOSE RIVIERE** | ABAROA ERRETIRATU ELKARTEA

"Itxura baten gustatu zait, aldaketak gainera beti izaten dira onerako, ezta?", zioen Rivierek. Euskaraz ulertu ez arren, elkartean jasotzen eta ikusten duela esan zigun.



**JOXEFE DIEZ DE TUESTA** | EUSKARA TEKNIKARIA

"Garbiagoa iruditu zait eta letra estiloa ere gustatu zait. Ondo egituratuta, niri gustatzen zaidan eran, begiratu baten erraz igartzen duzu zer irakurri nahi duzun".



'GOIENKARI' BERRIA AURKEZTU ZEN EGUBAKOITZEAN BERGARAKO MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN



MAIDER ARREGI

Edu Mendibil (*Berrigara*), Irati Agirreazaldegia (*Goibekokale*) eta Mireia Larrañaga (Goienako komertziala) jai giroan eta umoretsu harrapatu genituen, *Goienkaria* berria amaituta ikusita.



MAIDER ARREGI

Gotzon Arzelus Goienako komertzial burua eta Iñigo Alberdi musikan aditua lagun artean aritu ziren, koadrilakoak dira eta. Ondoa Karmelo Perez Oñatiko Ezker Batuko zinegotzia.



JOSETXO ARANTZABAL

Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak *Goienkaria* berria eskuetan zuela agurtu gintuen.



MAIDER ARREGI

EHUko irakasle Edorta Arana eta GOITBko zuzendari Oihane Agirre eta Antonio Zabala zinema aditua eta Edu Mendibil Berrigarako zuzendaria, janean eta edanean.



JOSETXO ARANTZABAL

Estepan Plazaola Goienako lehendakariak hartu zuen hitza lehenengo aurkezpen ekitaldian.

**LORE OFIZIALAK**

Deiane Arrieta lankideari egokitu zitzaion zeremonia-maisu lanetan aritzea. Betiko lez, ondo baino hobeto bete zuen lana. Hizkuntza politikarako sailburuorde Patxi Baztarrika azkeneko laga zuen gure lankideak eta haren zain egon izan bagina lez, lore sorta ederra bota zuen taula gainetik. Lehenengo hitzak **Goio Arana** *Goienkariako* diseinatzaileari zuzendutakoak izan ziren. "Kanadiar batek esan zuen moduan, bitartekoa ere mezu delako", esan zuen Baztarrikak, Goioeren lan ona goraiatuz. Militantzia ere aipatu zuen, "profesionaltasunarekin uztartuta eus-

kalgintzak behar dituelako". Berbaldi luzea egin zuen Baztarrikak, baina eskertzekoak dira haren loreak "Goiena eredu da eta erdaretan ere ez dago horrelakorik", bota zigun.

**ETXEAN MODUAN**

Era horretako gau-jaietan ohi denez, etxeako aritu ginen gus-

**Era horretako gau-jaietan ohi denez, Etxekoak aritu ginen gusturen**

turen. Aspaldiko partez **Oihane Agirre** agurtzeko parada izan nuen, amatasun baja amaituta eder asko etorri zen GOITBko zuzendaria. Haren koinata, eta Goienako lankide **Arantzasu Lagunilla** ere eder baino ederrago apainduta ikusi nuen. Inkestak amaitu ostean, **Monika Belastegi** eta bion txanda izan zen: ardo kopa bana hartuta pintxoei ekin genien **Iñaki Iturbe** lagun genuela. **Mikel Irizar** eta **Elena Laka** bidean agurtuta atera ginen handik; irrati-ko saioa zutelako atera behar izan zuten ekitalditik, baina jakin dugunez, pintxo batzuk jateko astia eman zieten garbitzaileek.



UXOA AGIRRE

Patxi Baztarrika, Fernando Tapia, Inaxio Arregi eta Estepan Plazaola Deiane Arrieta *Goitbko* aurkezleari begira.



**KARMELO PEREZ, MARTA LETURIA ETA ARANTXA SAGASTA** | OÑATIARRAK

Oñatiren orrialdea faltan bota zuten Ezker Batuko zinegotzi Perezek eta Ereitten herri plataformako Sagastak. "Egunkari komertzialen itxura gehiago dauka, sendoagoa dirudi", esan zigun Sagastak. Marta Leturia Goienako harpidetza arduradunarekin harrapatu genituen biak.



**ANA CARPINTERO, JON UNAMUNO, OLATZ OLASO ETA NEKANE GABILONDO** | JARDUN EUSKARA ELKARTEA

Anari "itxurosoagoa" iruditu zitzaion eta Nekareni, berriz, "serioagoa". Olatzek "erakargarriagoa" dirudiela esan zigun eta Jonek "egunkari handien antz gehiago" duela zioen. Laurak bergararrak izanik, Bergarako herriak duen orrialde kopuruari begiratu zioten, baina ez zuten kexarik agertu. Hala ere, Nekane esan zuen moduan "*Berrigara* historiara pasatu da, dagoeneko".



**MADA CUESTA, JOSE ANGEL ITURBE ETA PATXI OLABARRIA** | ANTZUOLARRAK

Antzuolaren orri kopurua erdira jaitsi izanaz arduratuta harrapatu genituen hiru antzuolarrak. Gertu Gae herri plataformako Olabarriak esan zigunez, "koloretan da orrialde bakarra, baina agian hobe da zuri beltzeko bi izatea". Madak esan zigunez, "aldaketa onera izan den denborak esango du".



SANTA ESKEA | IBARREAN OSO SUSTRAITUA DAUDE MARTIRIAREN EGUNA OSPATZEKO OHITURAK

# Beste urte batez ere etxez etxe zoriona opatzen

*Ohitura bereziarena Aretxabaleta eta Eskoriatzako kintoek daukate. Atzo herritarrentzat egin zuten dantza*

*Oñatin, aurten lehenengo aldiz, neskek ere irten dira santa eskean. Asteburuan auzoz auzo ibiliko dira*

Jon Berezibar

Euskal Herrian asko zabaldutako ospakizuna da, eta Debagoienan ere tradizioa da Santa Ageda bezperan etxez etxe kantuan ateratzea ibarreko herri ia guztietan. Ohitura hau, hala eta guztiz ere, ez da berdin bizi herri handi eta txikietan, azken horietan urteko kintoak irteten dira eta santa eskean.

Oñati edo Aretxabaletako kasua da hori. Ibar osoan goiztiarrenak izan ziren txantxikuak domekan. Goizeko zortzietan meza entzun eta eskean hasi ziren Oñatiko kintoak. Makilak hartu eta trikitiarekin erdialdeko kaleak zeharkatzen hasi ziren neska-mutikoak. Izan ere, Oñatin, aurten lehenengo aldiz, neskek ere irtetea erabaki dute. “Mutilak orain ez dira soldadutza egitera joaten eta horregatik uste dugu neskek ere irteteko eskubide bera daukagula”, zioen Amaia Txintxurretak, dagoeneko koplekin eztarria berotuta zuela. Talde polita batu zuten oñatiarrek atzo, 80 bat inguru. Datorren asteburuan, gainera, santa eskearekin jarraitzeko asmoa daukate, baina auzoz auzo egingo dute orduan ibilbidea. Berantiarago, baina parrandarako gogo bertsuarekin irten ziren Aretxabaletako kintoak eguerdi aldera. Guztira hogeitatu mutil batu ziren kalean, kantuan eta dirua batzen. Bazkaldu eta hurrengo hitzordua ilunkaran izan zuten. Arratsaldeko zazpitan batu ziren berriz ere herriko plazan urteroko dantza egiteko. Aretxabaletan eta Eskoriatzan usadio berezia da Santa Agedarena eta zapatuan baserri baserri ibili ziren blusa urdina jantzita. Domekan berriz, arropa zuria eta txapela gorriarekin herrian egin zuten oster, arratsaldean dantza egin baino lehenago. Antzuolan ere badute deboziorik eta asteburuan kinto-

ak irten ziren kaleetara, antzina-ko ohiturei eutsiz.

## ABESBATZAK ERE KANTUAN

Herri handiagotetan, Arrasate edo Bergara kasu, ez dute kintoek halako ohiturarik, eta Santa Ageda bezperan bestelako talde eta abesbatzek irten ohi dute kantuan. Arrasaten, adibidez, Santa Ageda korua irten zen zapatuan eta Bergaran eskoletako eta herriko taldeetako abesbatzek egiten dute santa eskea. Hala, Aramaion ere Bizente Goikoetxea abesbatzak egiten du eskea auzoetan barrena.

## Herri handiagotetan, kintorik ezetan, abesbatzek irten zuten martiria omentzera

## ZER EGINGO DUZUE BATUTAKO DIRUAREKIN?



AMAIA, MIKEL ETA IDOIA | OÑATI

“Goizean goiz hasi gara eskean eta hasieran jendea kostatu egin zaio, baina gero hasi dira dirua ematen; ea gehiago lortu ahal dugun”. Diruarekin zer egiteko asmoa daukaten galdetzean argi zeukaten hiru-ekin: “Ea diru mordo batzen dugun eta afari polita egin. Ziurrenik datorren urtean sagardotegira joango gara gaur batuko dugun diruarekin, baina oraindik ez dakigu”.



Aurten 1987 urtean jaiotako kintoek egin dute santa eskea Aretxabaletan.

JON BEREZIBAR

## SANTA ESKEAN JOATEKO HAMAIIKA MODU IBARREAN BERTAN



**NAGUSIENAK ERE GOGOAN.** Santa eskeko ibilbidean geldialditxo egin zuten kinto txantxikuek San Martin egoitzan. Domeka eguerdian izan ziren bertan, aitia-amamei abesten, eta ondoren herri erdigunean jarraitu zuten eskean.



**MUTIL DANTZA.** Aretxabaleta eta Eskoriatzan (argazkian) dantza berezia egiten dute Santa Ageda egunean. Agurra egiten diete neskei eta ostean guztiek batera dantza egiten amaitzen dute. Kintoek tinko eutsi diote aurten ere ohitura horri.



JON, MIKEL ETA IBAI | ARETXABALETA

Parrandarako giro polita zeukaten Aretxabaletako kintoek eguerdirako. Hauek ere batutako diruarekin afaria egin gura dute. Oñatikoak baino beranduxeago hasi ziren eskean domekan, baina behin hasita, gogotsu ibili ziren atez ate. “Dezente batu dugu aurten, ongi gabiltzala esan daiteke, gure asmoa juerga egin eta ondo bazkaltzea da, ea gehiago batzen dugun eta parranda ederra egin dezakegun”.





Gorkak eta Gaizkak, lagun askoren opariak jaso zituzten.

## Ongietorri beroa egin zieten Gaizka eta Gorkari barikuan

*Fidantza ordainduta, baldintzapeko askatasunean daude orain bi presoak epaiketan zer erabakiko den zain*

J. B.

Senide eta lagunak, hainbat herritarrekin batera, ongietorri egin zieten Gaizka Olabarrieta eta Gorka Aztiria arrasatearrei. Herriko plazan egin zieten omenaldi ekitaldia egubakoitzean, eta Batasuna, Askatasuna eta Segi taldeetako kideek ere parte hartu zuten. Amaitzeko, herriko preso politikoen senideek ere jaso zuten omenaldia, oraindik espetxeetan jarraitzen duten presoak oroitzuz.

Martitzenean askatu zituzten Arrasateko bi presoak Madrilgo Soto del Real kartzelatik, han bederatzita hilabete baino gehiago preso egon ostean. Orduan iritsi ziren herrira eta harrera beroa egin zieten adiskide eta senideek. Baldintzapeko askatasuna eman diete eta 18.000 euroko

fidantza ordaindu behar izan dute horretarako. Oraingoz, epaiketaren zain daude eta horregatik egunean joango dira berriz ere Madrilera, Entzutegi Nazionalera. ETAko Donostia komandoko kide izatea leporatzen diete bi gazteei.

### "OSORIK ETORRI GARA"

Ongietorrian bertan bildutakoek esker ona adierazi zieten Gaizkak eta Gorkak, eta "pozik" agertu

ziren "kartzelatik osorik eta batera" itzuli direlako. Izan ere, kartzelan egindako egonaldian torturak salatu zituzten eta inkomunikatuta ere egon ziren Polizia Nazionalak atxilotu zituenean. Joandako apirilaren 7an izan zen hori eta oraindik epaitzeke daude bi gazteak. Epaiketa noiz eta zehazki nola izango den "ideiarrik ere ez" dutela adierazi zuten, soilik egunean Entzutegi Nazionalera joan behar dutela dakite. Bien bitartean senide eta lagunak babesa jasoko dute, omenaldian ikusi zen bezala. Ongietorri ekitaldiarekin amaitzeko, afaria egin zuten hainbat lagunekin batera Arrano elkartearen.

**Pozik daude "kartzelatik osorik eta elkarrekin" itzuli direlako herrira**

**Egunean joango dira Madrilgo Entzutegi Nazionalera deklaratzera**

## Pesak egin du ibarreko autobus zerbitzua hobetzeko proposamena

*Diputazioak eguaztenean jaso zuen Pesaren proposamena. Aurten jarri nahi dute zerbitzua martxan*

Marijo Deogracias

Pesatik aditzera eman digutenez, "ez da zerbitzuak gehitzeko proposamena orain aurkeztu duguna. Udako ordutegiak nola geratuko lirakekeen jakiteko izan da. Hala ere, aurkeztutako proposamena, aurretik egindako zerbitzu gehikuntza baten oinarritzen da". Antza denez, seigarrena da dagoeneko, aurkeztutako proposamena. Baina, oraingoz behintzat ez da hasi zerbitzua. "Bere egunean neguko ordutegiak aurkeztu genituen eta han jasota zetozen hainbat zerbitzu".

### UDAN ZERBITZU GUTXIAGO

Zerbitzu hauek aurrez LKSk egindako ikerketa baten oinarritzen dira, gerora Diputazioak egindako hainbat aldatatxorekin. Eguaztenean Diputazioara aurkeztutako proposamenean udako bi hiletan, uztailean eta abuztuan, zerbitzu hauek erdira jaistea jasotzen da, Pesatik azaldu digutenez.

"Aurrerantzean Diputazioak erabakiko du zer egin, han kudeatzen baita garraio publikoaren zerbitzua. Oraingoz ez dakigu noiz erantzungo diguten, maiztetik gabiltza eta proposamenarekin bueltaka. Ziurrena da aurten hastea zerbitzu berri guztia".

### Zerbitzuak

- **DONOSTIA-ARRASATE**  
Orduro geralekuekin eta bi orduz behin zuzeneko.
- **EIBAR-SORALUZE**  
Zerbitzu azkarrak orduro (erdietan) eta geraleku guztietatik ordu puntetan.
- **EIBAR-BERGARA**  
Ordu erdiz behin autopistaz
- **BERGARA-ESKORIATZA**  
Azkarrak eta geraleku guztietatik 15 minutuz behin.
- **BERGARA-BERGARA**  
Zirkularra, bi norabidetan: Begara-Oñati/Zumarraga.

## Ibarreko herritarren %62,5ek irakurtzen du 'Goienkaria'

Monika Belastegi

C.I.E.S.-ek eman berri ditu hedabideek dituzten irakurle edo ikus-entzule kopuruen gaineko 2005eko datuak. *Goienkariak* ere badu bere lekua neurketa horretan. Inkesten bidez egindako neurketa da eta bi galderei erantzun behar izan diete inkestatuek *Goienkariari* dagokionez: batetik, ea aurreko astean irakurri duten, eta, bestetik, ea inoiz irakurri duten.

Lehenengo galderaren hari- ra, %61,5ek erantzun du baietz. Hau da, Debagoieneko euskaldun populazioaren ia guztiak -%66 da Eustaten arabera- irakurri zuten galdetu aurreko astean *Goienkaria*.

*Goienkaria* inoiz irakurtzen dutenak, berriz, %80,3 dira. Izan ere, euskaldun multzoari, ia-euskaldunen multzoa -Debagoieneko populazioaren %15 Eustaten arabera- gehitu diote. Hortik kopuruak gora egitea da.

# Aretz

Plater konbinatuak • Ogitaratekoak • Hanburgesak

Pizzak • Paellak eramateko

Zeliakoentzako ogitaratekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA







JOSETXO ARANTZABAL

Iñaki Galparsoro, makila eskuan, auzotarrek egindako omenaldiarekin pozarren.

## Gesalibartarren esker ona jaso zuen Iñaki Galparsorok

*Ia berrogei urteko lanarengatik eskerrak eman zizkioten auzotarrek parrokoari egubakoitzean egindako auzo-afarian*

Jon Berezibar

“Hunkituta eta guztiarengatik esker onez jaso zuen Iñakik omenaldia egubakoitzean” dio Jose Ramon Askasibar, Arrasateko Gesalibar auzoko alkateak. Berak, beste berrogeita hamar bat auzotarrek batera, egubakoitzean eman zizkion eskerrak Galparsorori ia 40 urtean parroko moduan auzoan egindako lanarengatik. Berak “hainbeste ez zuela merezi” eta “sekula ez zuela hori espero” adierazi zien Jentilola elkartearen batutako lagun eta auzotarrei eta “bihotzez eskertzen” ziela egindako omenaldia. Askasibar alkatearen iritziz “oso gizon apala da Iñaki eta lan asko egindakoa da auzoaren alde; benetan merezitako omenaldia izan zen”. Auzoko jaiak direla-eta egindako auzo-afarian

egin zuten eskerrak emateko ekitaldi xume hori. Auzotarrak eta bertan jaiotakoak batuta, oroi-garria eta makila oparitu zizkioten aurki bere kargua utziko duen parrokoari.

Bapo afaldu eta gero, bertso saioa izan zuten gainera Jentilola elkartearen, Sebastian Lizasorekin eta Euskal Herriko txapel-dunarekin, Andoni Egañarekin, hain zuzen ere. Modu honetan estimatu zioten Iñaki Galparsorori auzoaren alde egin duen lan

guztia eta hori dela-eta zera irakur daiteke hari emandako oroi-garrian: “Gesalibar auzoko bizilagunek esker onez, hainbat urtean bere onena gurekin konpartitu izanagatik”.

### ERRETIROAREN ZAIN

Garagartza eta Gesalibar auzotako parrokiaren ardura izan du Galparsorok 38 urtean. Aurki, hil amaieran, 72 urte beteko ditu elizgizonak eta dagoeneko erretiroaren zain dago bere jaioterriara, Atauna, itzuli ahal izateko. Auzoan lan handia egindako gizona da. Izan ere, parrokiaren gidaritzaz arduratzeaz gain, auzoan bertan langintza tailerra sortu zuen auzotarrei lana emateko.

## Arau Subsidiarioetan aldaketak proposatu ditu Bergara Aurrera taldeak

J. B.

Bergara Aurrera taldeak Arau Subsidiarioen gaineko proposamenak aurkeztu zituen zapatuan Udal bulegoetan.

Etxebizitza politika eta luraren erabileraren gainekoak dira herri plataformak Bergarako Arau Subsidiarioetan kontuan hartzea gura dituztenak. Oro har, Udalak etxebizitzaren arazoari ematen dion erantzuna jartzen du taldeak zalantzan, “1.400 etxe egingo baitira herrian, uneotan beste 1.200 hutsik daudenean”. “Eraikitzeo lur gutxi dago eta Udalak jabetzaren alde egiten du bakarrik apustu; eta hori ez da

konponbidea” salatu zuen Jesus Mari Garitano, taldeko bozeramaileak, Udal etxebizitza-politikaz kezu.

### ZABALOTEGIKO ARAZOA

Horrekin batera, Toki Ederretik hasi eta Zabalotegiraino joango den kale berriak ekarriko dituen kalteak agertu gura izan zituzten. Izan ere, aldaketa horrek herriko hainbat berdegune murriztea ekarriko du, Mariaren Lagundi-koak adibidez. Nekazariendako aprobetxagarriak izan daitezkeen lur sailak industrial moduan kalifikatu izana ere salatu gura izan zuten Bergara Aurrera plataformako kideek.

### • NIKOLASA AYASTUI OÑATIARRAK EHUN URTE EGIN DITU



MARIAN GONZALEZ

### • BARIKUAN BETE ZITUEN SENDIKOEN ONDOAN

Nikolasa Ayastui oñatiarrak ehun urte bete zituen egubakoitzean. San Martin egoitzan bizi da duela 10 urtetik eta han ospatu zuen lagun eta sendikoekin batera. Udaleko eta Aldundiko ordezkariak ere egin zizkioten opariak. Nikolasarekin batera, beste lau lagunek beteko dituzte 100 urte aurten Oñatin: Tomas Igarzabalek, Victoriana Villarrek, Juan Moyuak eta Mikaela Yarzak.

### • XABIER ARZALLUZ, BERGARAN



MONIKA BELASTEGI

### • 'ASI FUE' LIBURUAZ BERBA EGITERA ETORRI ZEN

EAJko lehendakari ohia Bergaran izan zen eguenean. Haren ibilbide politikoa batzen duen *Asi Fue* liburuaz berba egitera etorri zen Miguel Altuna institutura. Jende ugari hurreratu zen ekitaldira Arzalluzen liburua eskuan zuela eta asko izan ziren sinatzeko eskatu ziotenak.



## SAN VALENTIN EGUNEKO AFARI BEREZIA

Otsailaren 11n

- Amodio anitzeko iberikoak
- Belar finezko pate habitxoak
- Itsasoko grinaren pastela
- Hasperen gazta birrineztatuak
- Txahal okel tentazioak saltsan
- Maiteminduen bihotz lizuna
- Porruz eta ganbaz betetako laztan hostopilak
- Kafea
- Cava kopa
- Errioxako ardo beltza
- Sardasol ardo gorria
- Insalus ura
- Je t'aime sorbetea

ANIMAZIO MUSIKALA AFARI OSTEAN

Pertsona bakoitzeko prezioa: 30 euro + BEZa

Erreserbak hoteleko harreran  
Tel.: 943 715 700 (Derrigorrezko Erreserba)

## IRIARTE

Umeen  
denda

Helduen  
lentzeria



Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETAK



# *familia* *bizi-bizia*

ARIZMENDI Ikastolan familia osoarentzako zerbitzua eskaintzen dizugu. Gure lana, haurren eta gurasoen premiak asetzea. Zer behar duzue?

***matrikula epea otsailaren 6tik 17ra***

***902 11 20 25***

***Informa zaitez!***





Maisutza industrialia amaitu ostean, Ermuan lanean hasi zen. Handik Elgetako altzari enpresara, gerente, eta 1976ko otsailaren lehenengotik alkate da Patxi

Basauri. Gaztetan antzerkia egiteko lehenengo eszenatokia egin behar izan zuten berak eta lagunek. Joakin Gastesi abadeak sortutako dantza taldean ere aritu

zen. Gaur egun ere, tarteka, dantza egitea gustuko duela aitortu digu, baina Elgetan ez omen du egiten. Berriz alkatetarako aurkeztuko den ez digu argitu.

**PATXI BASAURI | ELGETAKO ALKATEAK 30 URTE EGIN DITU KARGUAN OTSAILAREN LEHENENGOAN**

# "Gero eta argiago daukat alkate baten misioa gestore ona izatea dela"

Marijo Deogracias

**30 urtez alkate. Nork esango zizun, Franko hil ostean, hauxe izango zenuela eguneroko jardun.**

1979an kandidatura independentearen buru lez aurkeztu nintzen; horrela egin genituen hiru legegintzaldi. Orduko oroitzen oso polita daukat: gure kandidaturan kolore guztietako jendea zegoen, eta hala ere, 12 urtean gure artean ez zen egon kontrako botorik. Bederatzi zinegotzi ginen orduan.

**Gero EAJren zerrendaburu izan zinen. Zergatik aldaketa hura?**

Hamabi urteren ostean jendea nekatu egin zen, eta asanblada baten ostean neuk ere alde egitea erabaki nuen. Baina EAJkoak etorri zitzaizkidan zerrendaburu izan nahi nuen galdezka. Jakina, aurrena pentsatu egin behar nuela esan nien, baina azkenean onartu egin nuen.

**Lehenengo hauteskundeak orduko zinen zu Elgetako alkate. Nola gogoratzen duzu trantsizio garaia?**

Trantsizioan hutsune politiko itzela egon zen, batez ere Gipuzkoan. ETAkide bat hil zuten eta Madrilera joan ginen, Oreja eta Martin Villarengana. Zer eskatuko genuen begira egon zen mundu guztia. Garai latzak izan ziren. Gerorako ere, hauteskunde ostean, Lepo Arantzeta hil zuten, eta orduan ere herria guardia zibilez inguratuta izan genuen, hiru egunetan. Tentsio urteak izan ziren eta osoko bilkurek gauerdira arte irauten zuten.

**Politikagintzak ala herrigintzak bultzatuta aurkeztu zinen?**

Politika soilak ez nau erakartzen. Alkate batentzako politika herriko arazoak konpontzea da, horrela ikusten dut. Gero eta argiago daukat alkate baten misioa gestore ona izatea dela.

**Baina bokazio pixka bat ere izan beharko duzu, ala?**

Aitortu behar dut beti gustatu izan zaidala; jakina, herrian

sinesten dudalako, baina batez ere epe luzera planifikatzea gusatzan zaidalako.

**Derrigorrean galdetu behar dizut, Patxi. Noiz arte alkate?**

(Barreak). Oraingoz datorren urtera arte, eta gero ez noa ezer esatera. Badakit, lagaz gero, bizi-modua erabat aldatuko zaidala, baina jakingo dut bestelakorik egiten, ezta!

**Elgetako arau subsidiarioek, Gipuzkoako lehenengotarikoak, aldaketa izugarria suposatu zuten. Ordukoak dira industriagunea eta baita saihebidetaren plana ere.**

1980ko maiatz aldera onartu ziren arau subsidiarioak eta gainera, estatu espainiarreko lehenengo saria irabazi zuten; Patxo de Leonek -Donostiakoak egiten aritu den arkitektoak- egin zituen. Hogei urtean indarrean egon dira eta esango nuke %100ean bete egin direla. Arkitektoak etorkizun sena izan zuen. Industriagunea jartzeko egundoko saila aurreikusten zen arauetan. 80ko hamarkadako industria krisia Elgetan lehen txego bizi izan genuen; %35eko langabezia genuen. Nire bulegoko leihoa behatoki lakoa da eta handik ikusten nuen jendea atzera eta aurrera, zereginik barik. Oso gogorra izan zen, baina industriagunea abiatu genuen, nahi-

**"Oraingoz datorren urtera arte jarraituko dut eta gerokoaz ez noa ezer esatera"**

**"Estatu espainiarreko 1. saria irabazi zuten arau subsidiarioek 80ko maiatzean"**



Udaletxeko bulegotik herriko plazatik eta inguruetatik pasatzen diren herritarrak ikusten ditu Elgetako alkateak.

koa kezkatuta, eta aurrera atera genuen beste guztien iritziaren kontra. Jendeak ez zuen sinesten proiektuan. Gaur egun herritarren %80k dauka lana hemen. **Diru iturri izateaz gainera, herritar gehiago ere ekarri dio industriaguneak Elgetari?**

Dinamika osoa ekarri du eta egia da bizitzera jendea etorri dela. Nik uste 1.500 lagun izateko gaitasuna baduela herriak. **Hazkundearen arabera zerbitzu gehiago eskaini beharko dituzue.**

1.000 edo 1.500 laguneko premiak berdinak lirateke, udal

**"Hurrengo hamar urteetan jendearen aisialdia betetzeko eskaintza asebate behar da Elgetan"**

**"Gutxitan, baina noizean behin alkatea udaletxean lagata ateratzen naiz"**

ikuspegitik. Aisialdi, kirol eta kultura premiak asebetetzeko eskaintzak bigarren egitekoak izan dira: Kafe antzokia egin da -165 milioi pezeta- eta pilotalekua konpontzen ari dira; baina mendi museoaren proiektua, esaterako, ez da oraingoz aurrera atera eta frontoi osteko parkea ere egiteko daukagu. Elgetan hurrengo hamar urteetan egiteko dagoena da jendearen aisialdia betetzeko eskaintza asebetetzea.

**Damutu zaizu zerbait: egiteagatik edo ez egiteagatik, aukera galtzeagatik, bigarren iristeagatik?**

Konforme nago egindakoa-ekin; ez dut uste hanka sartze oso larriak egin ditugunik. Egiteko batzuek oso luze jo dute -saihebidetara- eta penaz geratu nintzateke museoaren proiektuak irtenge ez balu.

**Azkeneko hauteskundeetan justu antzean irabazi zenuen. Ez zen ba kontaktua erraza izango hura?**

Ba, ez. Bost botoren aldea egon zen, baina ez nintzen traumatizatu alkatetza arriskuan egoiteagatik. Onartu egin behar diren gauzak dira.

**Zer daukazu herritarrek lau urte-tik behin bozkatu zaitzaten?**

Lehenengo legegintzaldian gutxieneko gehiengoa atera

genuen eta harrezkero, gehien- go absolutua. Herri oso bizia da eta batzorde informatiboak lehenengotik herriari zabalik egon dira eta parte-hartzaileak izan dira; kasurik egin ezean jendea ez litzateke etorriko.

**Joakin Gastesi herrian sortu zuen gazte taldean aritu zinen gaztetan, Mari Asunekin batera, besteak beste. Harrezkero lagun handiak zarete, lagun taldekoak.**

Bai. Sasoi hartan gazte taldeak sortu ziren eta geu ere hortxe aritu ginen. Dantza taldea lehenengo eta Oskarbi sortu zen gero. Gauza asko egiten ziren. Beti gustatu izan zait herrigintzan aritzea eta zentzu horretan, nire lagun taldeari asko zor diot, beti egon izan direlako nire ondoren, onean eta txarrean.

**Zuk, Patxi, 30 urtean bizitza publikoa izan duzu. Baina zelakoa da Patxiren bizitza pribatua? Zale-tasunak?**

Gutxitan, baina noizean behin alkatea udaletxean lagata ateratzen naiz. Tarteka, niri ere gusatzan zait parrandaren bat egitea, lagunekin ateratzea beste edozeini legez.

**Eta, dantza egiten duzu oraindik?** Bai (barreak). Batzuetan egiten dut, baina Elgetan ez.



## Albiste izango da

ELGETA | OTSAILAREN 10 ETA 11RAKO

### Mendi eski irteera antolatu du Egoki kirol taldeak Midi mendira

Pirinioetako Midi mendian 5-6 orduko eski zeharkaldia antolatu du Egoki kirol taldeak. Otsailaren 10ean irten eta 11n itzuliko dira. Parte hartzeko derrigorrezkoa da: mendian federatua egotea, eskiatzen oinarriko trebetasunak izatea eta negurako mendiko arropa egokia erotea. Garraioa partikularra izango da eta prezioari dagokionez, Udaleko Kirol Zerbitzuan kontsultatu behar da. Otsailaren 8a baino lehen eman behar da izena Udaleko Kirol Zerbitzuan, arratsalde; edo 943 76 80 22 telefono zenbakira ere dei daiteke.

OÑATI | IZENA EMATEKO MUGAEGUNA HILAREN 9A DA

### Haurrei lehen sorospenak egiteko tailerra antolatu dute

Haurrei lehen sorospenak egiteko tailerra antolatu dute. Teorikoa eta praktikoa izango da eta umeekin izan daitezkeen larrialdi kasuetan zelan jokatu erakutsiko dute. Doan da, eta aurrez izena eman beharra dago.

Zero eta sei urte bitarteko umeak dituzten gurasoendako antolatu dute tailerra eta Iratxe Fernandez sendagilea izango da irakaslea. Benediktinen eraikinean emago dituzte eskolak eta panpina erabiliko dute praktikak egiteko. Izena ematea beharrezkoa da parte hartzeko. Horretarako, deitu 943 71 82 72 telefono zenbakira otsailaren 9a baino lehen. Hilaren 11n eta 18an izango da ikastaroa, 10:00etatik 12:30ak arte.

ANTZUOLA | OZKARBI ELKARTEAREN AZKEN PISUAN

### Zapatuan zabalduko dute gazteendako aisialdi lokala

Zapatuan zabalduko dute 11 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako asteburuetarako aisialdi gunea. Ozkarbi elkartearen azkeneko solairuan dago eta zabalik egongo da zapatuetan, 16:00etatik 20:00etara eta domeketan, 16:00etatik 21:00etara.

Oraingoaz, maiatzeko azkeneko asteburura arte egongo da martxan zerbitzua eta epealdi horretako prezioa 20 euro da. Udalak jarriko ditu lokalean telebista bat, DVDa, bideoak, jokoak eta bestelako materiala. Bestalde, zerbitzuaz arduratuko da Legazpiko Larratz elkarte.

Lokala erabiltzeko interesa duten 11 eta 16 urte bitarteko gazteek datorren zapatutik aurrera eman dezakete izena lokalean bertan.

GATZAGA | SINADURAK BATZEN ERE HASIKO DIRA

### Batzartu egingo da gaur autobus zerbitzuaren aldeko taldea

Gatzagako herritarrek baztertu egin dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintako autobus zerbitzu plana. Eguenean egindako osoko bilkurara joan ziren herritarrak euren desadostasunaren berri emateko, eta Garraio Batzordeko kideek eskatu zieten udal ordezkariak euren ere bazter dezatela Aldundiak igorritako plana, ez baititu herritarren beharrak asetzen.

Horrekin guztiarekin, batzartu egingo da gaur, astelehena, Garraio Batzordea eta Aldundira bidaltzeko idatzia egingo dute. Sinadurak batzen ere hasiko direla aurreratu dute.


BERGARA | IRABAZI ASMORIK GABEKO TALDEENDAKO DA

### Kultura taldeendako laguntzen oinarriak kaleratu ditu Udalak

Oinarri horien helburua da Bergarako irabazi asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2006an garatuko dituzten jarduera eta ekintzetarako diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea. Onuradun izateko aurkeztu beharko dira, besteak beste, 2006rako jarduera programa eta haren gastu eta sarrerak jasotzen dituen aurrekontua.

Eskaerak astelehenetik zapatuta, 09:00etatik 13:00etara, aurkeztu ahal izango dira, Udaltzeko Erregistro Orokorrean, oinarriok Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

## Hitzordukak



### BILLAR TXAPELKETA ANTOLATU DUTE ELGETAKO ESPALOIA ANTZOKIAN | Datorren asteburuan jokatu dute, eta izenemate epea zabalik dago

Lehenengo aldiz billar txapelketa antolatu dute Elgetan, Espaloia antzokian. Billar amerikar mahaia jarri dute, eta hantxe jokatu dute. 16 urtetik gorakoendako txapelketa da, eta izenemate epea zabalik dago antzokian bertan; txapelketa hilaren 10ean eta 11n jokatu dute, datorren asteburuan.

Billarrean jokatzeko 2,54x1,27 metroko mahaia ipini dute, profesional mailako mahaia, hain zuzen ere. Billar amerikarraren arauak dioten moduan, marradun bolak edo marra bakoak sartu behar dira eta, bukatzeko, beltza. Hori egiten duenak irabaziko du joko.

#### ARETXABALETAK

##### • Eski irteerarako izena eman daiteke gaztelekuan

Luz Ardidenera eski irteera antolatu dute Atxagazte eta Eskoriatzako gaztelekuak elkarrekin. Otsailaren 11n, zapatua, izango da, egun bakarrezkoa. 40 euro da.

#### ARRASATE

##### • Feminismoaren erronken inguruko berbaldia

Feminismoaren erronkak hitzaldia egingo du Ana de Miguel adituak bihar, martitzena, udaletzeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

##### • Urbarriko erretiratuen etxeko kuota ordainketa

Ekintzetan parte hartzeko, ezinbestekoa da kuota ordainduta izatea.

##### • Bi eguneko irteera antolatu du Besaide mendi elkarteak

Otsailaren 11rako eta 12rako, Linzako aterpetxera irteera antolatu dute. Petretxema eta Atxerito mendiak igoko dituzte. 14 urtetik gorako gazteendako da. Izena emateko aukera dago astelehenean eta martitzenean, Besaideen lokalean, 19:30-20:30. Autobusa eta egonaldia pentsio erdian, 30 euro.

#### BERGARA

• Orfeoak batzar orokorra egingo du otsailaren 14an Bergarako Orfeoak batzar oro-

korra egingo du otsailaren 14an, martitzena, Zabalotegiko aretoan. Besteak beste, zuzendaritza berrituko dute. 20:30ean da lehen deialdia eta 21:00etan bigarrena.

##### • Mariaren Lagundikoen zozketako zerbaki sariduna

Mariaren Lagundiko DBHko ikasleen zozketan, 1613 zenbakia saritu dute. Zumelagan bi lagunendako afaria emango diote irabazleari. 15 eguneko epea dago saria eskatzeko.

##### • Mikroenpresei zuzendutako informatika mintegia

*Informatika nire enpresarako: askea ala ordaindutakoa* izenarekin, teknologia berriei etkina atera nahi dioten autonomoei eta mikroenpresei zuzendutako mintegia egingo dute bihar, martitzena, Bergarako Miguel Altuna institutu-  
tuan, 18:00etan.

#### DEBAGOIENA

##### • Euskal Eskola Publikoaren jaia aurkeztuko dute

Oñatin egingo dute Euskal Eskola Publikoaren jaia ekainaren 4an, eta etzi, eguaztena, aurkeztuko dute Arrasaten, Monterronen, 11:00etan.

#### ELGETA

• Mendi eski irteera antolatu du Egoki kirol taldeak Pirinioetako Midi mendian 5-6 orduko eski zeharkaldia anto-

latu dute otsailaren 10erako eta 11rako. Izenemate zabalik dago udal kirol zerbitzuan etzi, eguaztena, arte (943 76 80 22).

#### OÑATI

##### • Eski irteerak antolatu ditu Aloña Mendiko Eski Sailak

Otsailaren 10, 11 eta 12an, Baqueirara joango dira; martxoaren 17, 18 eta 19an beste irteera bat egingo dute; eta Aste Santuan Tiñesera, Alpe-  
etara, joango dira.

##### • Artzain bizimoduaren gaineko hitzaldia izango da

*Artzain bizimodua eta lanak* hitzaldi-diaporama izango da etzi, eguaztena, kultura etxean, 18:30ean. Errekalde Herri Eskolak antolatu du.

##### • Pake Lekuren Gabonetako zozketako zerbaki saritua

Pake Lekuko erretiratu etxe-koek abenduaren 22ko Gabonetako zozketarekin egin zuten zozketaren otarra jada irabazleak jaso duela: 0657.

##### • Umeendako lehen sorospen tailerra Elkar Hezi eskolan

Umeei lehen sorospenak ematen ikasteko tailerra antolatu du Elkar Heziko Gurasoen Elkarteak otsailaren 11n eta 18an. 0-6 urte bitarteko gurasoendako da. Batez ere praktikoa izango da. Izenemate hilaren 9an, eguenean, bukatuko da, 943 71 82 72 telefono zenbakian.



# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Iberdrolari: "Guk ere ordaintzen dugu"

Joan zen asteko elurtea dela eta, Elgetatik iritsi zaigu hurrengo txistua. "Joan zen astean, barikuan, argi barik geratu ginen herrian. Iberdrolara deitzen aritu nintzen zapatu goizean, baina norbaitekin berba egitea lortzen nuen bakoitzean, erantzungailuarekin baino ez nuen lortu komunikatzea. Deiaren arrazoiak banaka esaten zizkidan eta nik aukera egin behar nuen; ondoren herria esateko agintzen zidan eta nik kasu egin; azkenik, "tenemos localizada una avería en Elgeta. Hora de reparación prevista, 20 horas del día de hoy", esaten zidan eta deia eten egiten zen. Saiatzeagatik ere, ez nuen Iberdrolako inorekin hizketan egiterik lortu; dei guztietan makina batek erantzun zidan. Eta zera jakin nahiko nuke: Iberdrolari argia izateagatik ordaintzen diogu eta elurtero barik uzten gaitu, eta, gainera, kezuka deitzen dugun bakoitzean Telefonicari dirua laga behar al diogu? Hainbeste eskatzea da matxura zerbitzua dioen aukeran norbait izatea telefonoari erantzun eta gutxienezko azalpen bat ematea? Kontsumitzaile legez gutxienezko errespetua zor digu Iberdrolak".

### • Oinezkoekiko errespetua izan

Hurrengo txistua Arrasatetik iritsi zaigu. Oinezkoek San Andres aldean jasan behar izaten duten egoeraz kezka da gure irakurlea. Antza denez, San Andresko plazara doan bide gainean aparkatzen dute askok euren autoa. Hori dela eta, oinezkoek espaloitik jaitsi behar izaten dute eta bidetik ibili, tartean autoei traba eginda. "Espaloiak zertarako dira?", galdetzen du gure irakurleak. "Nik dakidala ez dira aparkatzeko. Hortaz, norbaitek neurri gogorrek hartu behar baditu ere, abisua ematea komeniko litzateke gidari ez solidario horiei".

## Sarean harrapatuta

### Badu arrakastarik telebista tematikoak?

Azkenaldian argitaratutako estatistika batzuen arabera, telebista tematikoak ikusleen %7,4 bereganatu du. 2004. urtearekin alderatuz, 1,1 puntu gehiago lortu ditu. Badirudi telebista tematikoak

ohiko telebistari lekua hartzen ari dela. Baina benetan arrakasta du telebista tematikoak? Debagoiendarrek ikusten dituzte horrelako kateak? Galdera hori egin dute *Goiena.net* webgunean.

### EZ DU USTE BEZALAKO ARRAKASTA IZANGO

Pixkanaka joango da gure gizartean integratzen, baina hala ere nik uste dut ez duela espero bezain arrakasta handia izango. Aukeran nahiago dut telebista digitala. Orain sei edo hamar katerekin haserretzen bagara etxean, ez dut pentsatu ere egin nahi 50 telebista katerekin zer gertatuko den.

Lili / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### TELEBISTA TEMATIKOA ERE EZ DA URREA

Arrakasta? Ez dakit ba. Telebista gaur egun dagoen moduan ikusteko gogo guztiak joaten zaizkit. Jendeak telebista tematikoa ikusten du bestelako telebista orokorren ematen dutenarekin aspertuta daudelako, baina konturatzen zara tematiko asko eta asko ere kaka zaharra direla: pare bat film on urtean, beste tele-sail arrakastatsuren bat, dokumental interesgarri bat edo beste eta beste guztia zakarrontzira botatzeko modukoa da. Onena telebistarik ez ikustea.

Alex / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### ANTZERAKOA IKUSI BAINA ORDAINDUTA

Nik telebista digitala daukat etxean eta egia esan hainbeste aukeraren artean gutxi dira salba-

tzen direnak. Aukera handia dago, baina orduak betetzeko ergelkeria asko jartzen dituzte eta jasanezinak dira programa batzuk. Ez dakit bada, ordaintzen ibiltzea berdin-berdina edo antzerakoa ikusteko...

Garbi / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### TEMATIKOA IKUSIKO NUKE, BAINA EZIN

Niri gustatzen zait telebista eta tematikorik ezin dut ikusi, baina gustatuko litzaidake. Beste telebistetan zakar asko egoten da

eta tematikoetan badirudi bada-goela aukera handiagoa. Filmak futbol partiduak... horiek ondo daude.

Txan / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### BESTEAK INPOSATU EGITEN DIZUTE ZER IKUSI

Nik badaukat telebista tematikoa ikusteko aukera eta guztiz ados nago. Eskaintza zabalagoa da eta zuk aukeratzen duzu zer ikusi. Bestela, ohiko telebista kateek inposatu egiten dizute zer ikusi. Guztietan berdina dago, zaborra eta serie zikinak.

Telebistazale / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### ESPEZIALIZAZIOA EKARRIKO DU

Telebista tematikoari esker aniztasuna ez ezik gai ezberdinen espezializazioa ere izango dugu. Hala, naturan, erreportajeetan edo kirolean zentratuko diren programak ikusiko ditugu

Tematic / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### ORDAINDU BEHAR DIRENAK HOBEAK DIRA

Oena Canal Satellite Digital erostea da. Hor ere programak tematikoak dira eta gainera kalitate askoz ere hobea dute. Ordaindu egin behar da baina programa tematiko onak ikusteko hobe da satellitea erostea!

Digital / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## www.goiena.net

Telebista tematikoak badu arrakastarik? Jendeak ikusten du?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo [www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgunera

## Halaxe erantzun digute

Ibarreko herrien arteko mugikortasuna bideratzeko autobus zerbitzu nahiko dagoela uste duzu



JOSE ANGEL ZABALO |  
ANTZUOLAKO ALKATEA

Argi dagoena da tranbiari zain egon barik autobusak behar direla bailaran. Antzuolan, esaterako, ikasturte sasoiaren 17:00etatik 21:00etara ordu erdian behin daukagu zerbitzua Bergarara, baina Zumarragara 2-3 autobus baino ez dabilta, eta horrekin ez da ziurtatzen bailarako mugikortasuna.



JOXE FERNANDEZ |  
HIRIGINTZA ZINEGOTZIA OÑATIN

Garbi dago oso gutxi dagoela. Hileon batzarra daukagu Diputazioan horretaz. Oñatitik bailarara eta Zumarraga aldera joateko zerbitzuak behar dira. Bestalde, udal aurrekontuan jasota dago Oñati-Arantzazu zerbitzua, asteburuetarako, mendizale eta turistendako; autoak gutxitzeko.



JOSE RAMON PEREZ |  
GATZAGAKO ALKATEA

Gatzagan asteen hasi da garraio zerbitzua; hortaz, oraingoz ezin dugu baloraziorik egin. Hala ere, egia da herrien arteko zerbitzua oso eskasa dela eta asko dagoela egiteko. Gure kasuan ere hobetu egin beharra dagoela argi dago, ordutegi murriztuan dabilelako hasi berri den zerbitzua.



MERTXE MONDRAGON |  
ARAMAIOKO ALKATEA

Orain dela urte pare bat gehitu zen autobus zerbitzua herrian; Arrasateraino goizez orduro dago autobusa eta arratsaldez pare bat zerbitzu. Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako zerbitzua da. Hala ere, Gasteizerainoko zerbitzuak indartzea komeniko litzateke; dagoena ez da nahikoa.



## Egunkarietako harribitxiak


### ARTELANEKIKO PASIOARI ETEKINA

Artearen merkatua azken 20 urteetako unerik gozoenean dago. Prezioek %20 egin dute gora eta ongialdiak etekin handia eman die enkante etxeei: iaz, 3.200 eurokoa, Artprice analisi etxe frantsesaren arabera. Inbertsio modu gisa erabiltzen dute gero eta gehiagok, baina arau propioak dituen merkatua da.

'Berria'  
2006-02-05



## Zorroztalea



### Ume bila

*Horregatik nire buruari galdetzen diot, ume bat adopzioan hartzen denean, zerbait salbatzearen sententzia ote du jendeak? bitzta hobeago bat eskaintzeko ahalmena dutela pentsatzen ote dute? zer da beraiantzat haur hori eskuratzea? ... Azken finean, zeintzuk dira haur bat adoptatzeko benetako arrazoiak?*

'Sustatu' | 2006-02-02

Ezagutuz gero adopzioak zenbat tramite eta buruhauste ekartzen dituen, aurretik oso ondo hausnartu barik ez dut uste inor txok pauso hori emango lukeenik.

Mendebaldeko gizakien emankortasunaren gainbeherak zerikusi handia dauka adopzioaren ugaltzearekin; baina arrazoi kulturalak ere badaude. Gero eta zaharrago hasten gara umeekin pentsatzen eta, askotan, konturatu orduko, naturak berak ezetz esaten digu, berandu gabiltzala.

Familia bera ere aldatzen ari da, eta orain arruntagoa da familia eredu ezberdinak egotea. Gero eta gehiago bidaiatzen dugu eta harreman gehiago izaten ditugu munduko beste kulturekin. Faktoreok ere laguntzen dute. Baina hurbiletik ezagutzen ditut hainbat kasu, eta ez dut uste bere burua inoren "salbatzailetzat" duen adopziozko guraso asko dagoenik. Ez horixe.

Juan Luis Azkarate

Urruneko herrialde batetik etorritako ume exotiko batek Nocilla edo Bosch elektrogailuak saltzen dizkigu; Emilio Aragon senar eta aita eredugarriak ere alaba txinatarraren telesail batean... nazioarteko adopzioa normalizatu egin da gizartearen eta urrun jaiotako umeak gero eta sarriago ikusten ditugu, nonahi.

Nazioarteko adopzioaren fenomeno bat-batean eta zalaparta handirik gabe hedatu da, poliki-poliki, azken urteotan. Euskal Herriaren 600 eskaera daude urtean eta Espainia da, AEBen atzetik, munduko bigarren herrialdea adopzio kopuruan. 2005eko lehenengo sei hilabeteetan, 2.637 atzerriko ume adoptatu ziren Espainian.

Hala ere, batzuk oraindik zalantza asko ei dute adopzioaz, desegoki edo moda bezala ikusten dute.

**"Hala ere, batzuek oraindik zalantza asko ei dute adopzioaz, desegokitzat edo moda bezala ikusten dute"**

**"Hainbat kasu ezagutzen ditut eta ez dut uste bere burua inoren salbatzailetzat duen adopziozko guraso asko dagoenik"**

### GORA IRISTEAK LUZE JOKO DU

Gizarteko beste atal batzuk zabalitzen ari dira azken urteetan, baina sektore pribatuko ardura karguak eta agintaritzaren postuak ia galarazita dauzkate oraindik emakumeek. Norvegiar ez dute zalantzarik. Ekonomiaren eta ongizatearen mesederako, dituzten giza baliabide guztiak erabiltzea ezinbestekoa da. Eta horrek zer esan nahi du? Emakumeak gizonezkoen pare

egon behar duela arlo guztietan, baita gaur egun sarrera ia galarazita duen tokietan ere: sektore pribatuko konpainietako administrazio kontseiluetan eta goi-agintaritzako postuetan. Eta beste inork baino are urrunago jo du Norvegiak, legez arautu baitu burtsan kotizatzen duten konpainien kontseiluetan %40 gutxienez emakumeak izatea.

'Noticias de Gipuzkoa'  
2006-02-05



## Tira, tira...



Peli 'Berria' | 2006-11-05

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'El País'

#### BIRAOTIK KRIMENERA

Erabaki okerra izan daiteke Mahomaren bineta argitaratu izana, baina akats bat kriminalizatzeko apurtu egiten du herrialdeko demokratikook sinatu dugun kontratu soziala. Askatasuna ez da hedagarria, ezta erretiraktila ere. Eta bere baitan Kristautasuna eta Islamismoa sartzen dira pertsonetikiko errespetua baldin badago.

Editoriala  
2006-02-05

### 'El Mundo'

#### SIRIAK ETA IRANEK MANIPULATUTA

Karikaturek eragindako egoeraren aurrean nazioarteko komunitatea ezin da kontenplaziotan ibili, eta ekidin egin behar du sortutako munstroa handitzea eta bere tentakuluak Ekialderaino hedatzea. Zentzu horretan, OIEAk Irango programa nuklearra Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari eman izana aurrerapausoa da.

Editoriala  
2006-02-05

### 'El Diario Vasco'

#### UMOREA ETA AUKERA

Adierazpen askatasuna eskubide bat da, baina zentzua betebeharra. Ikuspuntu horretatik argi dago karikatura egileek, editoreek edo iritzi egileek ez dutela zertan onartu mugarik, lege demokratikoak ezarritakoa izan ez, eta Mahoma profetak ez du zertan salbuespen izan, ezta bere turbante-bonbaren trazu lodian ere.

Editoriala  
2006-02-05

### 'Gara'

#### KRISI NUKLEARRA

Segurtasun Kontseiluak eskatu dizkio Irani gardentasun neurriak, edo bestela esanda, laga diezaiola bere plan atomikoekin lotura duten "persona, dokumentazio eta ikerketetan" esku hartzen. Hala, gaur egun ez daukan informazioa eskuratuko luke. (...) Vienatik bultzatutako erabakia kezagarria da.

Editoriala  
2006-02-05



# KIROLA

- Master Zirkuituetako sari banaketa egin du Mankomunitateak | 17
- Mugarri Alkesak 75-81 irabazi du iguera faseko asteburuko partidua | 19



Markel Mendieta eta haren anaia Anderrekin jardun dugu boulderraren gainean | 21

## PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

ALOÑA MENDI

# 1-0

UDA

**Aloña Mendi** | J. Elgarresta, X. Elgarresta, Igartua, Garai, Arregi I (Lopez, 91. min.), Barrena, Olalde, Idigoras, Bazan (Zubia, 55. min.), Astola eta Arregi II (Astigarraga, 62. min.)

**UDA** | Igartua, Raul, Torres, Iregi, Gus Arenaza, Iñaki (Endika, 52. min.), Unamuno (Imanol, 45. min.), Arriaga (Juan, 80. min.), Eriko eta Espinosa (Kepa, 70. min.)

**Golak:** | 1-0 Unai Arregi (1. minutuan)

**Epailea** | Varillas jauna. UDAko jokalariek ziren ados geratu epaileak adierazitako jokoz kanpoekin.

**Bestelakoak** | Ikusle asko hurbildu ziren Azkoagainera. Kintoak ere bertan izan ziren, eta giro ona jarri zuten euren abesti eta koplekin.

### Bikain

#### Partiduko gola

Unai Arregik sartutako gola bikaina izan zen. Partiduko lehenengo minutuan, baloia bularrarekin kontrolatu eta area kanpotik jaurti zuen. Baloia eskuairatik sartu zen.

### Kaskar

#### Hika-mikak

Tentsioa zela-eta, partidu amaieran bi taldeetako jokalariek batzuk hika-mikan hasi ziren. Kontuan izan behar dute norgehiagokak zelaian irabazi edo galtzen direla, eta ez zelatik kanpo.

### Esandakoak

“Derbi guztiak bezala, partidu gogorra izan da. Defentsan eginiko lan onari esker, markagailua alde mantendu dugu”.

UNAI ARREGI |  
ALOÑAKO JOKOLARIA

“Galtzen hasi gara eta ezin izan diogu horri buelta eman. Bukaeran, dudazko jokoz kanpoak adierazi dizkigute”.

JON IREGI |  
UDAKO JOKALARIA



Aloña Mendi eta UDA denboraldi oso ona burutzen ari dira.

FUTBOLA | DERBI BEROA AZKOAGAINEN JOKATUTAKOA

# Oñatiarrak nagusitu ziren Azkoagaingo derbian

*Derbi guztiak bezala, borrokatua izan zen Aloña eta UDAk Azkoagainen jokatura norgehiagoka. Azkenean etxeok nagusitu ziren*

Arantzazu Ezkibel

Partiduko lehenengo minutuan Arregi I.ak sartutako golari esker, derbiko hiru puntuak etxean geratu ziren domekan. Aloña jokalariek, baloia bularrarekin kontrolatu eta jaitsi egin zuen. Unairen jaurtiketa ezkerreko eskuairatik sartu zen, atezainak ezer egiteko aukerarik izan gabe.

Norgehiagoka borrokatua izan zen. Lehenengo zatian Aitor Oruetaren mutilek hartu zuten

jokoaren jabetza. Aparteko jokorik egin gabe, barneratze arriskutsuak egin zituzten oñatiarrek eta atsedenera abantaila handiagoaz iristeko aukera izan zuten Aloñako mutilek.

35. minutuan, Arregi I.ak kornerra atera eta Roberto Idigorasek buruz errematatu zuen; baloia langa jo zuen. Aukera polita izan zuen bigarren gola egiteko. Atsedenerako minutu gutxi falta zirela, Aloñaok falta izan zuten alde area ertzean. Jon Igartuak hartu zuen baloia jaurti-

tzeko ardura, baina baloiek barreran jo zuen eta UDAkoek ongi atera zuten baloia aurrera.

Atsedeneren ostean, baloia-aren jabetza Aretxabaletako taldearena izan zen. UDAkoek

baloia ongi mugitu zuten eta baloi luzeak jaurti zituzten aurrelarien buruak bilatu nahian. Hala ere, Aloñakoen defentsa oso sendo aritu zen eta baloi guztiak arazorik gabe atera zituzten atzeal-detik.

#### AZKEN UNEKO TENTSIOA

UDAKoek gola behar zuten eta buru-belarri aritu ziren horretan. Oso aurrean jokatu zuten, asko arriskatu, eta hori dela eta jokoz kanpo asko izan zituzten aurka. Felix Reciorenen taldea ez zen gustura geratu epaileak hartu zituzten erabakiekin.

Amaieran, derbia oñatiarrentzat izan zen, gol bakarreko aldearekin. Aloña sailkapeneko lider jarraitzen du 48 punturerekin. Aretxabaletakoak, berriz, 6. daude 39 punturerekin.

**Korner batean Roberto Idigorasek baloia, buruz, langara bota zuen**

**UDAK ez zuen amore eman eta golaren bila atera zen buru-belarri bigarren zatian**



Preferente maila



ARTXIBOA

Arrasateko taldeari gol bakarra egin zion Mutriku, nahiz eta zelaian jokalaria gehiago izan.

# Mondrako hiru jokalaria kanporatu zituen epaileak

MUTRIKU  
**1-0**  
MONDRA

**Mutriku** | Aitor, Ibon, Pagoaga, Tubal, Asier, Josema, Kepa (Mikel, 62. min.), Aritz (Jabier, 85. min.), Gorka (Oier, 52. min.), Eneko (Jeremi, 80. min.) eta Jon.

**Mondra** | Oier, Mercader (J. Aranbarri, 57. min.), Gotzon, Markel, Laspiur, Ruben, Alzola (Illart, 76. min.), Keixi, J. Heriz (Murua, 51. min.), Lopez (Ekain, 51. min.) eta Muxi (Loiti, 69. min.).

**Golak:** 1-0, Aritzek (55. min.).

**Epailea:** Perez jauna. Arrasateko taldearen aurkako erabaki ugari hartu zituen.

A.G.

Ruben izan zen Mondrako lehen kanporatua, lehen zatia amaitzeaz zegoela. Epaileak esan zuen eskuarekin jo zuela baloia eta bigarren txartel horia atera zion, aldagelara bidaliz.

Iker Laspiur izan zen bigarren kanporatua. Bigarren zatia hasi eta berehala txartel gorria ikusi zuen Arrasateko jokalariei. Epaileak bi jokalariren arteko jauzi baten ostean atera zion.

Beraz, Mutriku taldeak ia 45 minutu jokatu zituen bi jokalaria gehiagorekin. Arrasatekoen jokoa ona izan zen, baina ez nahikoa kostaldekoeen presioari aurre egiteko. Mutrikuaren gola 55. minutuan iritsi zen.

MUTRIKUK AUKERAK SORTU ZITUEN

Mondra izan zen baloiaren jabe lehen zati osoan, baina partiduko aukerarik garbienak Mutriku sortu zituen egindako joko zuzenari esker.

Bigarren zatian hobeto aritu ziren Arrasatekoak, kontuan hartuz gero bi jokalaria gutxiagorekin aritu zirela. Mutriku gol bakarra egin zuen. Mondrako jokalariek ondo defendatu zuten Oierren atea eta aldea ez zen gehiago zabaldu.

Epaileak kanporatutako hiru garren jokalaria arrasatearra Gotzon izan zen. Amaierarako sei minuturen faltan ikusi zuen Mondrako jokalariek bigarren txartel horia.

Lehenengo Erregionala

# Garaipen honekin goiko postuan jarraitzen dute

BERGARA  
**3-1**  
EIBARTARRAK

Arantzazu Ezkibel

Aparteko jokorik egin gabe, Bergara nagusi izan zen zapatuan Agorrosinen. Josu Zubiauren mutilek 3-1 irabazi zioten Eibarko taldeari. Mahoneroak bigarren dira 41 punturekin.

Markagailua ireki zuen gola Asierrek sartu zuen 30. minutuan, penalti bidez. Ondoren, Imanolek eskumatik bi erdiraketa egin zituen jarraian baina inork ez zituen errematatu.

40. minutuan Davidek bigarrena egin zuen, Imanolek ate aurrean utzitako baloi bati esker.

Bigarren zatia lehen minutuetan, Imanolek pase sakon bat jaso zuen eta atezainaren aurrean ez zuen huts egin. Partidua amaitzeko gutxi falta zela, Eibarkoek, jokaldi nahasi batean, gola egin zuten.



JOSETXO ARANTZABAL

Asierrek markagailua ireki zuen penaltiz sartutako golarekin.

Bigarren Erregionala

# Golik ez Estalan igoera faseko lehen partiduan

ANTZUOLA  
**0-0**  
IKASBERRI

A.G.

Zapatuan eman zion hasiera Antzuolako taldeak 2. erregional mailako igoera txapelketari. Liga bikaina egin ostean, mailaz igotzeko borrokan sartu da Antzuolako taldea eta igoera

txapelketako lehen neurketa gogorra izan zen. Azpeitiko Ikasberri taldea etorri zen Estalara. Talde oso indartsua da eta bien arteko norgehiagoka berdindua izan zen.

**BI AUKERA IZAN ZITUZTEN**

Antzuolako jarraitzaileak bate-re golik ikusi gabe itzuli ziren zapatuan etxera Estalatik. Jose Luisek gidatzen duen taldeak pare bat aukera sortu zituen, baina mutilek ez zuten jaurtiketetan zorzea lagun izan eta zutoinak aldendu zuen baloia birritan.



JOSETXO ARANTZABAL

Antzuolako taldeak mailaz igotzea du helburu.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK

Real Union-Pasaia	4-2
Orioko-Touring	1-2
Aloña Mendi-UDA	1-0
Idiazabal-Zestoa	1-0
Beti Gazte-Allerru	1-1
Mutriku-Mondra	1-0
Ordizia-Berio	1-0
Zarautz-Irun 1902	3-1
Hernani-Anaitasuna	5-1
Trintxerpe-Hondarribia	0-1

HURRENGOAK

Pasaia-Touring
UDA-Orioko
Zestoa-Aloña Mendi
Allerru-Idiazabal
Mondra-Beti Gazte
Berio-Mutriku
Irun 1902-Ordizia
Anaitasuna-Zarautz
Hondarribia-Hernani
Trintxerpe-Real Union

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Aloña Mendi	48	23	15	5	3	48	29
2. Real Union	48	23	15	5	3	49	24
3. Ordizia	44	22	14	6	2	38	22
4. Pasaia	40	23	10	3	10	50	32
5. Trintxerpe	40	22	12	6	4	39	30
6. UDA	39	22	11	5	6	42	22
7. Zarautz	39	23	11	6	6	45	27
8. Mutriku	37	23	11	8	4	33	29
9. Touring	32	23	9	9	5	31	31
10. Mondra	31	22	9	9	4	34	27
11. Hernani	30	23	8	9	6	33	34
12. Hondarribia	29	23	8	10	5	27	38
13. Anaitasuna	28	22	8	10	4	26	31
14. Idiazabal	27	22	6	7	9	26	35
15. Zestoa	25	23	6	10	7	27	34
16. Berio	25	23	6	10	7	32	37
17. Irun 1902	18	23	4	13	6	27	46
18. Beti Gazte	17	23	3	12	8	24	40
19. Orioko	17	23	3	12	8	27	58
20. Allerru	11	23	2	16	5	18	50



# Eskola kirola

BERGARA

## Astean entrenatu egiten dira umeak zapatuetan maila onena emateko

*Mariaren Lagundiako patioan saskiratzeetan trebatu ziren benjaminak*

*Labegaraieta kiroldegian bildu ziren umeak eskubaloian aritu ziren*

*Umeak asko saiatzen dira. Gurasoek gozatua hartzen dute haiek animatzen*

Larraitz Zeberio

Ez dago txantxarrik Eskola Kirolean. Beste asteburu batez argi ikusi dugu eskola-umeek garrantzi handia ematen diotela Eskola Kiroleari.

Ondo jokatzeko beharrezkoak dituzten gauza guztiekin etortzen dira. Ganorazko kirol oinetakoak, ileak trabarik ez egiteko buruko elastikoak eta, nola ez, taldearen koloreak dituen kamiseta banarekin.

Gehienak, gainera, astean bitan entrenatzen dira ikastetxeetako irakasleekin. "Kirol desberdinen arauak zeintzuk diren eta hobeto jokatzeko nola kokatu azaltzen digute", adierazi zizuten umeek zapatuan. "Normalean entrenatzaileak erabakitzen du taldea nola antolatu, baina batzuetan postu guztietan jarduteko txandatu egiten gara bost minututik behin".

### GURASOEN AHOLKUAK

Haurrekin batera zapaturo guraso taldeak hurbiltzen dira Eskola Kirola saioetara. Semelabei animoak ematera etortzen dira, baina haiek bezainbeste urduritzen dira partiduak aurrera egin ahala. "Ondo begiratu baloia saskira jaurti aurretik!", esaten zion batek bere semeari. "Kontuz errebotea!", beste batek alabari. Denentzat da eskola polita eskola kirola.



**Antzuola C.** Mariñe, Leire, Amaia, Aiora, Ander, Unai, Mikel eta Iker. Argazkian Dean falta da.



**Aranzadi 2.** Andoni G., Javier, Mikel E., Alex, Maddi, Beñat, Andoni B., Mikel A., Aitor eta Gloria.



**Mariaren Lagundia A.** Jon, Dani, Ibai, Ibon, Inaxio, Andoni, Maria eta Iñaki.



**San Martin B.** Karmele, Julen, Joseba, Marian, Iker, Ander eta Unai.

### • HORRELA BIZI DUTE ESKOLA KIROLA GAZTETXOEK



**LEIRE ETA AMAIA | ANTZUOLA C**

Gogoz aritu ziren antzuolarrak. Denen artean erabakitzen dute partidu bakoitzerako taldea nola antolatu. "Saskibaloia ondo dago, ez da joko gogorra".



**ANDONI, MARIA ETA IBAI | MARIAREN LAGUNDIA A**

Taldekideak partidua jokatzen ari ziren bitartean beroketa ariketak egiten aurkitu genituen. "Irakasleek astean erakusten dizkigute kirol bakoitzeko arauak, gero ondo jokatzeko".



**MIKEL A., JAVIER, MIKEL E. ETA ANDONI | ARANZADI 2**

"Saskibaloia gustuko dugun kirola da, nahiz eta futbola eta pilota ere asko gustatu", esan zizuten. "Astean asko entrenatzen dugu, gero, asteburuan, ondo jokatzeko. Gustura etortzen gara".



**MARIAN ETA UNAI | SAN MARTIN B**

Baloia saskiratzea baino gehiago kostatzen omen zaie aurkariari baloia lapurtzea, baina asko saiatzen dira. Astean bitan entrenatzen dira.



# Iruditan



JOSETXO ARANTZABAL

**Debagoieneko Mankomunitateko Master Jaia.** Hainbat kirol zirkuitoren sari banaketa egin zen zapatu eguerdian Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Tenis txapelketako irabazlea Elgoibarko Abel Hernandez izan da. Squash txapelketakoa Alberto Ferreiro eibartarra, eta frontenisekoa, Candido Hurtado-Jose Izquierdo bikotea.



IÑIGO GABILONDO

**Herri Kirolak.** Miren Urkiolak erakustaldia egin zuen atzo Murinondon. Giro polita sortu zen, halaber, auzoko Gabilondotarrek trontzan egin zutenean.



JOSETXO ARANTZABAL

**Arrasate 17-Elorrio 3.** Garaipen polita lortu zuten Arrasatekoek zapatuan. Jende asko batu zen eta hiru entsegu eta transformazio bat lortu zituzten.



LARRAITZ ZEBERIO

**Realzaleak Aretxabaletan.** Barkero, Lopez Rekarte eta Skoubo Aretxabaletan izan ziren bariku iluntzean. Ametzuela Realaren lagun taldearen inaugurazio ekitaldira etorri ziren.



JOSETXO ARANTZABAL

**Irujoren erakustaldia.** 8-22 irabazi zioten atzo, domeka, Irujok eta Eulatek Asegarceko bikote Koka-Belokiri. 40 minutu nahikoa izan zituzten garaipena eskuratzeko.



• LEHENENGO TERRITORIALA

# Lehen zatian hartu zuten abantaila Ormaiztegiak

*Bergarak asko hobetu zuen jokoa bigarren zatian, baina ez zen nahikoa izan amaieran*



ARTXIBOA

Bergarako jokalariek hasiera motela izan zuten. Bigarren zatian jokoa nabarmen hobetu zuten.

BERGARA  
**25-32**  
ORMAIZTEGI

**Bergara** | Kapelastegi, Uribe (2), Larrañaga, Agirre (4), Sanchez (2), Zanoitu, Otxoa, Pozo, X. Najera, I. Najera, Zabaleta (1), Lenisoro (3), Ugalde (2) eta Plazaola (11).

**Ormaiztegi** | Maiz, Alberdi (1), Otegi (7), Oñatibia (9), Petxarroman (5), Hernandez, Aramendia (7), Iraeta (1), Holgado (2) eta Maiz.

**Golak bost minutu:** 1-3, 3-7, 5-8, 7-13, 9-16, 11-19. Atsedena. 12-20, 14-21, 16-23, 19-25, 23-29, 25-32.

Larraitz Zeberio

Ormaiztegiak jokalariai Bergarakoak baino handiagoak, indartsuagoak eta eskarmentu handiagoak dira.

Zapatuan ez ziren esku hutsik joan Labegaraietatik, garaipena eraman zuten-eta etxera. Baina esan beharra dago Bergarak itxura ona eman zuela bigarren zatian.

**HASIERA MOTELA**

Kosta egin zitzairen Muniategiren mutilei Ormaiztegiak neurrria hartzea. Hasieratik jarri ziren aurretik kanpokoak eta laster zabaldu zuten hiru goleko tartea. Lehen zati osoan aurretik joan ziren eta hasierako errenta hori handituz, gainera.

Lasai egoteko moduko abantaila zabaldu zuten atsedenerako, zortzi puntukoak, hain justu.

Defentsan lan ona egin zuten, zuloak ondo estaliz, eta erasoan etxekoek baino emaitza hobeak lortu zituzten.

**BERGARAREN ALDAKETA**

Atsedeneraren ostean Bergarako taldeak oso bestelako itxura eman zuen. Ormaiztegiak gehiegi lasaitu ziren nonbait eta hutsegiteak egiten hasi ziren. Bergarakoek, bitartean, asko

azkartu zuten jokoa. Kapelastegi oso ondo aritu zen ate aurrean eta Plazaolak gol polit asko egin zituen.

Honek guztiak animoak altzarazi zituen Labegaraietan eta epaileak partidu amaiera nahasia izan zuen. Bi minutuz Bergara bi jokalaria gutxiagorekin aritu zen. Dena den, Ormaiztegiaren alde zabalegia zen markagailuari buelta emateko.

• BIGARREN TERRITORIALA

# Arrasatekoek joko bikaina egin zuten

ARRASATE ESKU BALOI  
**27-24**  
DONIBANE

**Arrasate Esku Balo** | Ekaitz, Pello (5), Enrique (1), Luar (7), Inaxio, Joseba (7), Iñaki, Arkaitz (6), Aitor, Aritz, Aitzol (1) eta Gorka.

**Donibane** | Bravo, Javier, Andres, Idoipe, Dardo (4), Tente, Bruña, Oiarbide (5), Aramburu (3), Vicente, Olaizola (5) eta Perez (7).

Markagailua atsedenean: 13-16.

Larraitz Zeberio

Gustura irteten da bat kiroldegitik horrelako partidu bat ikusi ondoren. Arrasateko taldeak asko borrokatu zuen atzo, domeka, garaipena eskuratzeko eta merezimendu osoz lortu zituzten jokoa zeuden bi puntuak.

Donibaneko taldea gogorra da. Mutil handiak eta indartsuak dira eta aurretik jarri ziren norgehiagokaren lehen zatian. Bost goleko alde zabaltzera iritsi ziren Iturripen, baina ez zuten mantentzen jakin.



JOSETXO ARANTZABAL

Pello Olaberria ere ondo aritu zen, 5 gol egin zituen.

**BIGARREN ZATI BIKAINA**

Atsedeneraren ostean berdintzea lortu zuten etxekoek. Lan handia egin zuten denek baina bere-

ziki aipatzekoa izan zen Ekaitz, Luar eta Josebaren lana. Amaiera parekatua izan zen baina azkenean 27-24 irabazi zuten.

• LEHENENGO TERRITORIALA

# Aloñak joko ona eginez irabazi zion Elgoibarri

A.G.

Aloñak 18-28 irabazi zion domekan Elgoibarri. Iñigo Aramburu entrenatzaileak esan digunez, oñatiarrek joko ona egin zuten, batez ere defentsan. Une batean etxekoek 3 goleko alde izan arren, Aloñak irabazi egin zuen.

• LEHENENGO TERRITORIALA

# Ford Mugarrik 13-27 irabazi du Urnietan

A.G.

Sailekapeneko lehen postuetan jarraitzen du Arrasateko taldeak. Merituak egiten ditu Ford Mugarrik astebururo goian mantentzeko. Domeka goizean, esaterako, erraz irabazi zion Urnietako taldeari.

• NESKEN EUSKADIKO TXAP.

# Aloñako neskek bigarren goz berdindu dute

A.G.

Verkol Aloñak 21-21 egin zuen zapatuan Askartzaren aurka. Partidua gaizki hasi zuten oñatiarrek; 5 gol atzetik ere izan ziren. Bigarren zatian defentsan oso ondo aritu ziren eta markagailua berdintzea lortu zuten.

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

**NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA**  
UPV Askartza-Verkol Aloña 21-21

**LEHENENGO TERRITORIALA**  
Bergara-Ormaiztegi 25-32  
Elgoibar-Arrikruz Oñatiko Kobak 18-28  
Urnietako-Ford Mugarrik Alkesa 17-27

**BIGARREN TERRITORIALA**  
Arrasate Esku Balo-Donibane 27-24

**GAZTE MUTILAK**  
Aloña Mendi-Leitzaran 41-20  
Bergara-Aitzuri Jatetxea 21-15  
Gatz Museoa Jakion-Urola 33-14

**GAZTE NESKAK**  
Arrasate-Leitzaran 03-29  
Zarautz-Verkol Aloña atzeratua  
Bergara atsedena

**KADETE MUTILAK**  
Gatz Museoa Jakion atsedena  
Aloña Mendi-Arrate 27-25



• NESKEN BIGARREN MAILA

# Eskoriatzak zulo asko utzi zituen

*Javi Corbalen neskek etxekoan babesa izan zuten arren, ez zuten irabaztea lortu. Eskoriatzakoek azken postuan jarraitzen dute*

ESKORIATZA

**53-74**

UPV ALAVA

**Eskoriatza** | Serrano (5), Laborda (12), Gomez, Caceres (2), Calderon (3), Murillo, Usabiaga (2), Soriano (3), Exposito (16), Etxeberria (6), Agirrezabalaga (2) eta Alarcia (2).

**UPV-ALAVA** | Ruiz (2), Iribas (4), Cecilia (4), Garcia (2), Garcia (21), Iñiguez (4), Gonzalez (22), Picaza (2), Zurigarin (2), Miñon, Garcia eta Fernandez (7).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 9-10. Bigarren laurdena 22-27. Hirugarren laurdena 37-54. Laugarren laurdena 53-74.

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzak huts asko egin zituen defentsan eta horrek bere eragina izan zuen azken emaitzan. Javi Corbalen neskek ondo hasi zuten partidua, grina han-

diarekin. Lehenengo laurdeneko partziala 9-10 izan zen kontra. Aldea nahiko txikia zen, geratzen ziren minutuetan berreskuratzeko modukoa.

Hala ere, etxekoek intentsitatea jaitsi egin zuten, eta defentsan izan zituzten hutsen ondorioz, arabarrak markagailuan aurrera joan ziren.

Bigarren laurdenean, eskoriatzakoek baloia atzetik ateratzerako orduan arazoak izan zituzten. Erasorako indarra falta izan zitzaizen etxeko neskei. Barneratzeak egiterakoan, aurkarien defentsarekin egin zuten topo. Hori dela eta, kanpoko jaurtiketak egin zituzten, baina modu horretan ere saskiratze gutxi lortu zituzten eskoriatzarrak.

**2. ZATIAN GAINBEHERA**

Bigarren zatian eskoriatzarren defentsa guztiz apurtu zen. Zulo asko utzi zituzten etxekoek eta aurkariak ondo aprobetxatu



JOSETXO ARANTZABAL

Partiduko momentu batean, Maite Usabiaga saskira jaurtitzen.

zituzten zulo haiek baloia saskian sartzeko.

Bigarren zatiko partzialak hauek izan ziren: 15-27 eta 16-20.

Azken laurdenean, emaitza txukuntzeko ahalegina egin zuten etxekoek, 16 tanto eginez.

Baina gutxirako balio izan zuten. Azkenean, 53-74 galdu zuten eskoriatzarrek. Saillkapeneko azken postuan dira ibarreko neskek, 19 punturekin. Lan handia egin beharko dute maila mantendu nahi badute.

• SENIOR MUTILAK

# Saiatu arren, Candyk galdu egin zuen etxean

CANDY BERGARA

**62-66**

KEVIAN SPORT

**Candy Bergara** | Murillo (7), Ancin, Urbina (6), Morais (12), Arteaga (3), Larrañaga, Beistegi (11), Ugarte (11), Alonso (3), Iñarra (2), Aliaga eta Eraña (7).

**Kevian Sport** | Intxausti, Goikoetxea (10), Guerendiain (11), Curto, Monreal (5), Izquierdo, Temprano (8), Hernandez (8), Aizpurua (17), Arana (5), Sanchez eta Balzola.

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 19-13. Bigarren laurdena 30-36. Hirugarren laurdena 51-47. Laugarren laurdena 62-66.

Arantzazu Ezkibel

Bergarak eta Kevian Sportek gorabehera askoko partidua jokatu zuten zapatu iluntzean Labegarrietako kiroldegian.

Lehen laurdenean etxekoak 19-13 aurreratu ziren markagailuan. Baina bigarren laurdenean 11 tanto egin eta 23 jaso zituzten, markagailua aurkarien alde ipiniz.

**ERREBOTE GUTXI HARTU**

Bergarakoek errebote gutxi berreskuratu zituzten bigarren laurden horretan. Saski azpian baloia hartzeko ez zen Bergarako jokalaririk geratzen. Beraz,



ARTXIBOA

Bergarrek errebotea hartzerakoan huts egin zuten.

donostiarrak samurtasunez atara ziren erasora.

Hirugarren laurdena berriro ere etxekoentzat izan zen, 21-11 partzialarekin. Erasoan ondo aritu ziren Bergarako mutilak, baloia ongi mugituz eta barneratze eraginkorrek eginez.

Azkenean, ordea, partidua ikhes egin zion etxeko taldeari.

Begararrak arinegi ibili ziren eta hori dela-eta erasoan baloi asko galdu zituzten.

Zapatukoa ligaxkako bigarren partidua izan zen. Orain arte, partidu bat irabazi eta beste galdu dute bergarrek. Guztira 3 puntu ditu talde mahone-roak eta saillapenean goiko postuetan kokatuta dago.

• LEHENENGO MAILA

# Mugarri Alkesa garaipenarekin itzuli da Iruñetik

VIAJES MARFIL

**75-81**

MUGARRI ALKESA

A.G.

Sei tantoko aldea atera zieten zapatuan Arrasatekoek Barañaingo Viajes Marfil taldeari. Garaipen berri bat lortu dute, hortaz, Zurutuzaren mutilek kanpoan.

Neurketa berdindua izan zen. Nafarrek defentsa gogorra egin zuten eta epaileen lana permisi-boa izan zen zeharo.

Arrasatekoak jarri ziren aurretik markagailuan, baina alde txikiarekin. Atsedenean, nafarrak ziren aurretik, 38-37.

**IÑIGO BIAIN LESIONATUTA**

Partiduak albiste txarrik ere eka- rri zuen. Iñigo Biainek min har- tu zuen orkatilan neurketa hasi eta gutxira. Ander Mallabiaba- rrenak hartu zuen arku azpia defendatzeko ardura. Ez zuen bate- re gaizki egin. Berak eta Jagoba Gamarrak aparteko lana egin zuten lehen zatian. Atsedenaren ondotik Kintana bikain aritu zen joko antolatzen eta Alarcia, berriz, saskiratzeak egiten.

Datorren astean lanpetuta ibi- liko dira Zurutuzarenak. Joan zen astean bertan behera gelditutako neurketa domekan jokatu dute.

**Emaitzak**

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Viajes Marfil-Mugarri Alkesa 75-81

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza-UPV Alava 53-74

SENIOR MUTILAK

Ametza-Aloña Mendi 59-62

Candy-Kevian Sport 62-66

SENIOR NESKAK

Internacional-Aloña Mendi 51-26

GAZTE MUTILAK

Mugarri Alkesa-Loiola 63-41

Lasao Altzariak- Araneta 72-48

Aloña Mendi-Goierri 31-50

GAZTE NESKAK

Añorga-Eskoriatza 17-23

Carnicas San Marcial-Aloña Mendi 20-00

KADETE MUTILAK

Easo A-Mugarri Alkesa 62-54

Aloña Mendi- Easo Loiola 28-88

KADETE NESKAK

B.K.L. CAF-Eskoriatza 31-38

Bera Bera Manteo-Bergara 78-14



FERNANDO JUARISTI | BERGARARRA, REALEKO BETERANOekin ENTRENATZEN DU

# "Uste dut Bakerok Realak behar duena fitxatu duela"

Xabier Urtzelai

## Garaipen garrantzitsua Realarena.

Oso, oso, oso garrantzitsua. Borroka handiko norgehiagoka izan zen, gaitza, baina atzo Realak zortea aldeko izan zuen, behingoagatik bada ere.

## Zelan ikusi zenuen taldea?


Hasteko, Gonzalo Arkonadaren lana eta fitxaketa berriek zelan erantzungo zuten ikustera joan ginen. Alde horretatik, uste dut Bakerok asmatu egin duela, Realak gehien behar zituen jokalariek ekarri dituelako. Lehia handiko partidua izan zen, eta Mallorcak ere hiru puntu horien behar handia zuen.

## Zelan ikusi zenituen atzerritarak?

Orokorrean, nahiko ondo. Hainbat gauza egon ziren asko gustatu zitzaizkidanak. Skoubok erakutsi du jokalaria ona dela, aurrelari peto-petoa dela. Baina, niri Viafara gustatu zitzaidan bereziki. Uste dut berehala ulertu duela Realak atzealdean zer behar duen; jokalaria oso lagungarria izango da. Igartzen da Ingalaterrako ligan ibili dela: indartsua, azkarra... Mark Gonzalez min hartuta egon da, eta igarri egin zitzaion fisikoki baduela zer hobetu. Dena dela, jokalaria azkarra da. Stevanovic-ek ez du oraindik gauza handirik egin, baina jokalaria gaztea da.

## Fuentesek harrobiaren gainean egin zizun berba, eta lau atzerritar ekarri ditu.

Bakerok argi eta garbi esan zuen harrobikoa izanda ere, Lehenengo Mailan merezi zuten jokalariak bakarrik jokatu zutela. Harrobikoa izateak bakarrik ez du balio, eta ni ados nago horrekin.



Fernando Juaristi: "Fuentesek borondate onenarekin hartu du kargua".

Zenbat jokalaria daude Realean ez direnak kategoriatan? Hutsune hori betetzera etorri dira atzerritarak.

## "Harrobikoa izateak bakarrik ez du balio behar Realean jokatzeko"

## Realeko beteranoekin entrenatu eta lagunartekoak jokatzeko dituzu. Nori kenduko zenizkioke 20 urte, eta Realeko hamaikakoan jarri?

Periko Alonsori, Xanti Bakerori, eta bi zentraletan: Alberto Gorri eta Gajateri. Errespetu osoz esanda, horiek izan ziren Realeko benetako azken zentralak. Eta ezin dut alde batera utzi Meho Kodro. Gurekin entrenatzen da astero, eta oraindik ikustekoa da nola jokatzeko duen. Horri ez zaizkio 20 urte kendu behar, bost urte gutxiagorekin...

## Harmailatik

# Emaitzarekin itsutu barik



Xabier Urtzelai

**Betiko filma.** Baina, bestelako amaiera, horrelakoa izan zen atzoko norgehiagoka. Aktore berriek estreinaldia eginda ere, ikusleak gutxiagatik ez ziren Anoeta zinematik negarrez atera, beste melodrama bat ikusita. Emaitzak (2-1) ezin du inor itsutu, beste behin, gabezia handiak erakutsi zituen eta Realak. Hori bai, bazen garaia, behingoagatik, horrela irabazteko; Santamas egunean irabazi zuen Realak azkenekoz.

**Ilusioa:** Irudimenezko ikuspena, edo Realaren garaipenarekin lasai geratzea. Skoubok egin zuen lehenengo golean ilusionista lana, eta Mark Gonzalezek bigarren golean. Hala ere, errealitatea bestelakoa izan zen: Realak arazo handiak izan zituen jokoa antolatzeko: berriro ere tarte handiegia lerro artean. Lehenengo zatian,

sailkapenean azken postuan zegoen Mallorcak %56ko baloi jabetza izan zuen. Realaren erdialdean, Viafarak erakutsi zuen jokalaria indartsua dela, defentsa lanetarako dohainak dituela. Baina, ez da joko antolatzailea. Eta, ondoan izan zuen Mikel Alonso ez da beste domeka batzuetako jokalaria.

**Stevanovic.** Realean dauden aktore berrien artean, orain arte pattalena. Skoubok urrea balio zuen gola egin zuen lehenengo zatian, nahiz eta bigarren gol aukeran gola errazegi ikusteagatik itsutu eta kale egin. Orain arte, baina, bera izan da onena. Gutxi egin zuten atzo Viagarak besteko kilometro, baina egia da gutxi galdu zutela berak beste baloi. Urrunetik ondo jaurtitzen du, emango du ezusteko bat baino gehiago. Mark Gonzalez ezin zaio, oraingoz, gehiago eskatu, baina Stevanovic-i ez diot ezer berezirik ikusi. Ea laster isilarazten nauen.



## Gonzalo Arkonada

Entrenatzaileei behar baino garrantzia handiagoa ematen diegu. Dena dela, Arkonadak ondo hasi du ibilbidea. Ezin ahaztu Amorrortuk erakutsi duen gizatasuna.



## Victor Sanchez

Deportiboko jokalaria nekez ahaztuko zaio Valentziaren kontrako norgehiagoka. Bi penalti bota zitzaion Cañizaresi, biak txarto. Eta, Cañizaresek biak geratu zituen (0-1).

## Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK	
Sevilla-Osasuna	0-1
Racing-Celta	0-1
Getafe-Alaves	2-2
Reala-Mallorca	2-1
Zaragoza-Betis	4-3
Vila-real-Cadiz	1-1
Bartzelona-Athletic	1-3
Malaga-Athletic	2-1
Real Madrid-Espanyol	4-0
Deportivo-Valentzia	0-1


HURRENGOAK	
Osasuna-Zaragoza	
Betis-Deportivo	
Valentzia-Bartzelona	
Athletic-Reala	
Mallorca-Getafe	
Alaves-Malaga	
Athletic-Real Madrid	
Espanyol-Racing	
Celta-Vila-real	
Cadiz-Sevilla	

SAILKAPENA							
	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	52	22	16	2	4	53	19
2. Valentzia	43	22	12	3	7	33	19
3. R.Madril	42	22	13	6	3	42	23
4. Osasuna	42	21	13	6	3	28	23
5. Celta	36	22	11	8	3	24	24
6. Sevilla	35	22	10	7	5	27	21
7. Vila-real	35	22	9	5	8	28	21
8. Deportivo	33	22	9	7	6	30	25
9. Zaragoza	31	22	7	5	10	31	30
10. Getafe	29	22	8	9	5	31	28
11. Athletic	29	22	7	7	8	26	23
12. Reala	25	22	7	11	4	32	43
13. Racing	24	22	5	8	9	19	26
14. Espanyol	24	22	6	10	6	20	33
15. Cadiz	22	22	5	10	7	17	26
16. Betis	22	22	5	10	7	20	31
17. Malaga	20	22	5	12	5	26	34
18. Athletic	19	22	4	11	7	25	32
19. Alaves	19	22	4	11	7	21	34
20. Mallorca	18	22	4	12	6	21	39

# Kiniela

KINIELA	
1. Vila-real-Cadiz	X
2. Sevilla-Osasuna	2
3. Zaragoza-Betis	1
4. Bartzelona-Athletic	2
5. Reala-Mallorca	1
6. Getafe-Alaves	X
7. Malaga-Athletic	1
8. Real Madrid-Espanyol	1
9. Racing-Celta	2
10. Numantzia-Castellon	1
11. Murtzia Hiria-Malaga B	1
12. Tenerife-Recreativo	1
13. Sporting-Gimnastic	2
14. Valladolid-Albacete	2
15. Deportivo-Valentzia	2

## Euskal taldeen asteko hamaikakoa





Adituek etorkizun handia dutela diote, eta prestatzaile lanetan diharduen Josean Mulas-ek dio denbora gutxian asko aurreratu dutela.

Markel eta Ander arrasatearrak dira eta ordu asko egiten dituzte Uarkape pilotalekuko eskalada-murruan. Aldean dituzte beti eskalatzeko oinetakoak eta

magnesio poltsa. Gero eta gazte gehiago biltzen dira Arrasateko eskalada-murruan. Orain, Gipuzkoako Teknikazio Zentro bakarra Uarkapen zabaldu du Federazioak.

MARKEL ETA ANDER MENDIETA | BOULDER ESKALATZAILE ARRASATEARRAK

## "Boulderra modan dago baina txapelketa gutxi antolatzen dira. Nahiko eskasak dira gainera"

Larraitx Zeberio

**Urte asko daramazue boulderra egiten?**

**Markel.** Ni duela sei urte hasi nintzen. Betidanik gustatu izan zait. Euskadiko Kutxan ibiltzen ginen hasieran eta klasetik irten da aritzen ginen boulderrean. Kiroldegiko eskalada-murrua zabaldu zuten gero eta ordutik hona etortzen gara. Asteburuetan nahiago dugu mendira joan.

**Ander.** Nik lau urte daramatzat boulderra egiten. Anaiak kutsatu zidan zaletasun hau.

**Eskalada-murrua edo mendia duzue nahiago?**

**M.** Murrua entrenatzeko erabiltzen dugu. Neguan etortzen gara gehien bat Uarkapera, eguraldi onak datozenerako indartsu egoteko.

**Elkarrekin entrenatzen duzue?**

**A.** Askotan, baina ez beti. Bakoitzak bere ordutegiak ditu eta horren arabera etortzen gara entrenatzera.

**Markel, zuk irabazi zenuen Santamasetako Arrasateko boulder txapelketa. Maila handia ikusi zenuen?**

**M.** Jende nahiko ona etorri zen. Enpresek babestutako jendea etorri zen eta maila ona egon zen, baina nik irabazi nuen. Indartsu nengoen eta gauzak ondo atera zitzaizkidan.

**Ander, zuk sari berezia jaso zenuen 17 urterekin 4. sailkatu zinelako.**

**A.** Bai. Ni ere ondo ibili nintzen. Oso ondo.

**Lehia handia dago zuen artean?**

**A.** Ez pentsa! (Barre).

**M.** Oraindik ez dago horrelakorik, adin tartea asko nabaritzen delako. Baina laster hasiko gara horrelakoekin.

**Mendira joaten zaretela esan didazue. Debagoienean ibiltzen zarete?**

**M.** Debagoienean Oñatiko Araotz auzoan ibiltzen gara gehien bat. Eguraldi onarekin leku aproposa da entrenatzeko. Sokarekin ibiltzen gara, han bia luzeak daudelako. Eskalada-murruan, aldiz, teknika lantzen dugu eta soka barik ibiltzen gara.

**A.** Eguraldi ona dagoenean Nafarroa aldera egiten dugu askotan, Larraonara joaten gara. Opa-kua jaitsi eta bertan dagoen herria da. Han soka barik ibiltzen gara.

**"Arrasateko eskalada-murrua txiki gelditu da. Jende asko erortzen da. Guk entrenatzeko erabiltzen dugu"**

**"Araotz (Oñati), Larraona (Nafarroa) eta Albarracin (Teruel) ditugu gustuko eskalatzeko"**

Bloke izeneko saioak egiten ditugu. Mugimendu gutxi dira baina nahiko gogorak.

**Boulder eskalatzaileak autodidak-tak zarete?**

**M.** Ni Mulas-ekin hasi nintzen, gure egungo prestatzailea. Ez da irakaslea, baina gustatu egiten zaio gazteekin ibiltzea eta asko berarekin hasi gara.

**A.** Ni ere berarekin hasi nintzen. Asko ikasi dut.

**Osasun ona dauka boulderrak Debagoienean?**

**M.** Ez dakit, baina Uarkapeko murrua beteta egoten da. Beste bat behar dugu. Daukaguna txikia da. Jende asko etortzen da inguruko herrietatik.

**Baina ez duzue talderik sortu, ezta?**

**M.** Euskal Federazioak teknikazio zentroa sortu berri du orain eta Arrasaten dago Gipuzkoako bakarra. Duela hilabete jarri zen martxan. Hamar bat lagun ari gara bertan. Ondo dago entrenamenduak jartzen dizkigutelako gimnasioan.

**Asko entrenatzen duzue?**

**A.** Asteazken bat egunez etortzen gara entrenatzera. Eguraldi hobearrekin gehiago ibiltzen gara.

**Eta zein da zuentzat eskalatzeko lekurik gustukoena?**

**A.** Niri Larraona asko gustatzen zait. Oso ondo datorkit. Bia motzak dira eta mugimendu gutxi eskatzen dituzten hormak dira. Niritzako modukoak dira.

**M.** Negu partean asko gustatzen zait Teruel aldeko Albarracin ingurua. Sekulako hotza egin ohi du, -3°, baina izotzarekin itsas-



Zaletasun bera dute bi anaiek. Anderrek 17 urte ditu eta Markelek 21.

pena hobea da. Jende asko joaten da. Hotza egin arren kamiseta barik ibiltzen dira eskalatzaileak.

**Zein gihar lantzen duzue gehien?**

**M.** Besoak, bularra eta bizkarrak gehien bat. Gerritik gora ia guztia. Komeni da behatz potoloa ere gogorra edukitzea hormara ondo atxikitzeko.

**Txapelketetan parte hartzen duzue?**

**A.** Gutxi daude. Gasteizen egiten dira gehienak. Aurten, agian, Euskal Herriko txapelketa egingo da martxoaren 26an.

**M.** Ni gustura joaten nintzen, baina azkenaldian ez. Jende gehiegi batzen da eta sari txikiak egoten dira.

### • GIPUZKOAKO TXAPELKETA



JOSETXO ARANTZABAL

### UDA MERCEDES BENZ 2-LASKORAIN 1

Zapatu arratsaldean Aretxabaletako mutilek mendean hartu zuten Tolosako taldea. Gainetik ibili ziren norgehiagoka osoan eta atsedenerako gol bateko aldea zuten. Joseba Frailek egindakoa, hain zuzen. Bigarren zatian bigarren gola egin zuen Ander Agirianok. Presio handia egin zuten Tolosakoek amaieran. Gol bakarra egin zuten.

### • ARETO FUTBOLA, LEHENENGO MAILA



ARANTZAZU EZKIBEL

### ALOÑAK SUFRITU EGIN ZUEN GARAIPENA LORTZEKO

Aloñak 2-1 irabazi zion Getariako Irizabal taldeari. Etxekoei kosta egin zitzaien lehen gola egitea. Horrela, atsedenera husnako berdinketarekin iritsi behar zirela ematen zuenean, Aritz Aranburuk 1-0ekoa egin zuen. Bigarren gola ere Aritzek sartu zuen bigarren zatiko 10. minutuan. Getariarren gola 2. zatiko 15. minutuan etorri zen.

### Labur

## Emaizta onak Igeriketa txapelketan

Zortzi igerilari debagoiendar izan ziren asteburuan Ordizian jokatu zen Gazte mailako Euskadiko Igeriketa txapelketan, bost bergarar eta hiru oñatiar hain zuzen.

Emaizta onak lortu zituzten denek ere. Iñaki Zubia oñatiarrak, esaterako, urrezko bi domina eskuratu zituen 100 eta 200 metroko bizkar lasterketan.

Bergarako igerilarien artean Nielka Ibarzurenek zilarrezko hiru domina ekarri zituen etxera. Bular lasterketan nabarmendu zen Nielka 50, 100 eta 200 metroko lasterketan hain justu.



# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Giulio Mercati organo-jotzaileak gustura laga zituen entzuleak zapatuan | 26
- Abian da Bergarako Koldo Eleizalde literatura lehiaketa | 27

Koldo Amestoy lapurtarrak ipuinak kontatuko ditu egunean Aretxabaletan | 27

## AMODIOZKO GUTUNEN XIV. BERRIGARA LEHIAKETA

AMODIOZKO GUTUNAK | ANDONI EGAÑA BERTSOLARIARI IDATZITAKO GUTUNAREKIN JASO DU SARIA 34 URTEKO LAPURTARRAK

# Karlos Aizpurua saratarrak irabazi du amodiozko gutunen lehenengo saria

*Epaimahaiak azpimarratu ditu gutunaren gaurkotasuna eta erabilitako elementuen freskotasuna*

*112 gutun jaso dituzte antolatzaileek –Jardun euskara elkarteak– eta 50 SMS*

Monika Belastegi

Sarara, 34 urteko Karlos Aizpurua eskutara joan da aurten XIV. Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketako 450 euroko sari nagusia. Halaxe erabaki du Julen Gabiria eta Yolanda Arrieta idaz-

leek, Alex Sardui Gatibu taldeko abeslariak eta Alaitz Sarasola iazko irabazleak osatutako epaimahaiak. Asteon eman dute jakitera erabakia Jardun euskara elkarteak kideek. Baita SMS Bidezko IV. Maitasun mezuen lehiaketako irabazlearen izena ere.

Epaimahaiak, oro har, parte-hartze handia azpimarratu du eta saritutako lanen zein finalisten maila altua. Erabat maiteminduta dagoen jendeak idatzitako gutunak izan direla gehitu dute, eta maiteminduen arteko distantziak konstante bat izan direla.

### EGAÑA BERTSOLARIAREKIN MAITEMINDUTA

Itsaso deitutako neska batek Andoni Egaña bertsolariari idazten dio gutuna. BECeKo saio ostean izan zuten maitasun saioa ezin du burutik kendu. Horixe da Karlos Aizpurua irabazleak gutunerako aukeratu-tako argumentua. Epaimahaiak nabarmendu ditu gutunaren

### Lehiaketa datutan

- **PARTAIDEZTA:** 112 gutun (hamalau ediziotan 2.027).
- **ADINA:** Batez beste 24 urte.
- **SEXUA:** %70 emakumezkoak; %30 gizonezkoak.
- **JATORRIA:** Bergararik, 4 gutun; Debagoienetik, 15; Gipuzkoatik, 52; Bizkaitik, 40; Arabatik, 1, Nafarroatik, 18; Lapurditik, 1.
- **EPAIMAHAI NAGUSIA:** Julen Gabiria eta Yolanda Arrieta idazleak, Alex Sardui Gatibu taldeko abeslaria eta Alaitz Sarasola iazko irabazlea.
- **SMS MEZUAK:** 50 mezu.

gaurkotasuna eta erabilitako elementu guztien freskotasuna. Horrekin batera gehitu du: “Ondo burututako joko-ariketa bat da, hitz-jokuz beteta. Esaldi bakoitzak bi edo hiru esanahi dauzka; oso iradokitzailea da. Arin-arin irakurtzen da, abia da batean, hitz guztiak primeran lotuta daude, hizkuntza oso ondo menderatuz. Sentimendu karga handia dauka. Andoni Egaña eginiko bertso saioaz maiteminduta dagoen batek idatzitakoa da”.

Bigarren saria (240 euro) 22 urteko Nagore Etxabe zarautzarrak jaso du. Epaimahaiaren esanetan gutun oso orijinala eta detallista da, “arruntasunari idazten dio, egunerokotasunari.

### Sari banaketa San Valentin egunean

Amodiozko gutunen sari ematea, tradizio bihurtu den bezala, San Valentin egunean egingo dute, otsailaren 14an, hortaz. Bergaran izango da eta irabazleek gutuna jendaurrean irakurriko dute, ohi bezala soka hirukoak lagunduta.

Seguru asko kultura etxean egingo dute sari ematea –erabat zehazteke dago–, 19:00etan, eta bukaeran luntxa egongo da.

### Epaimahai gaztea

Bergarako ikastetxeetako gazteek osatu dute, ohi bezala, epaimahai gaztea. Garazi Arantzetak, Oihana Aldazabalek, Iban Albizuk, Maite Alonsok eta Maider Usobiak jardun dute zeregin horretan. Euren lana izan da 26 urtetik beherako gutun onenaren saria ematea eta baita SMS bidezko maitasun mezuen saria ere.

26 urtetik beherako gutun onenari dagokionez, Nerea Urtzelai 17 urteko bergararrak jaso du 100 euroko saria. Peio apaizak Axier izeneko eliztarrari bere maitasuna adieraziz idatzitako gutunarengatik jaso du. Epaimahai gaztearen iritziz, “orijinala da, erraz irakurri eta ulertzekoa eta sorpresa faktorearekin jotzen duena”. Espero ez zuten moduan bukatzen da gutuna eta hori gustatu egin zaie.



### Lehenengo saria

KARLOS AIZPURUA | SARA | 34 URTE

Zelan Andoni?

“Zu ondo, ta ni?” edo holako zerbait botako zenuen honezkero. Kafe Antzokiko barran ere, aitaren batean erantzun zenidan puntu alu hura. Zer esanik ez komuneko puntu suspensiboak!

Oraindino ez zait erabat sikatu komuneko saioa. Kartzelako saioa ere, bi malkoena, oso-osorik gogoratzen dut. Kartzelakoan hartu ninduten preso zure bertsoek; komunekoan zure besoek. Baita ere zure

beste “besoek”, muxuek, alegia. “Ejem! Ejem!” Bueno baleee. Bai, badakit azken hitz-joko hori ez dela zureen mailakoa. “Hitz-joko diglosikoa” esango lukete bertsolaritzan aditu usteko horiek. Zer daki, baina, soziolinguistikak maitasunaz?

Gaur goizean pisukide bati kontatu diot gure sekretutxoa. Eta mongi larregi ez ote dudan jaten galdetu dit. Ez dit piperrik sinetsi. Egia esan, nik ere ez nuke sinetsiko, egunero-egunero zure txapela nire etxean ikusiko ez banu.

Gutunaren pasarte bat.

### Bigarren saria

NAGORE ETXABE | ZARAUTZ | 22 URTE

Igogailuan gora zoaz. Zer moduz joan da eguna? Ezkerreko eskuan duzu postontzitik hartu berri duzun gutun pilo. Azalean zure izena soilik agerian duena ireki duzu eskuineko eskularria hortz artean hartuz. Irribarre egin duzu. Ez zenuen espero. Egutegi eta iragarkiek besterik badiote ere gaurkoa egun arrunta da gu bezalako bikote arrunt batentzat. Baina gaur nirekin jolas dezazun nahi dut. Utzi liburu eta poltsak etxean, jantzi berokia eta eskuin eskularria.

Zoaz Kiroldegi ondoko parkera. Ez jarraitu irakurtzen bertan egon arte. Tranparik ez, eh pottoka? Ikusten duzu itxura arraroa duen iturria?

Gutunaren pasarte bat.



AMODIZOKO GUTUNEN XIV. BERRIGARA LEHIAETA



Parte-hartze handia eta irabazle eta finalisten maila azpimarratu du epaimahaiak

Julen Gabiria eta Yolanda Arrieta idazleek, Alex Sardui Gatibu taldeko abeslariak eta Alaitz Sarasola iazko irabazleak osatu dute aurten epaimahaia (goiko irudian Sardui falta da eta Miguel Angel Elkoroberezibar lehiaketaren arduraduna ageri da). Epaimahaiak emandako iritzi orokorrean azpimarratu du parte-hartze

handia eta kalitateari dagokionez, hainbeste idazlanen artean denetarik dagoela esan dute, baina finalisten eta saritutako lanen maila altua nabarmendu dute. Bestalde, aipatu dute topikoz beteta daudela gutunak, baina benetan orijinalak ere badaudela, eta horiexek dira, hain zuzen, bereziki baloratu dituztenak. Azpimarratu dute,

baita ere, benetan maiteminduta dagoen jendeak idatzi dituela. Gutun efektistak badaudela ere esan dute, baina sinesgarritasuna hartu dutela kontuan. Umore askorik ez dute aurkitu; bestalde, beste edizioetan ohikoa izan den trajikotasuna ez da aurten asko azaldu. Maiteminduen arteko distantzia konstante bat izan dela azaldu dute.

Arrunta dena eta berezia dena bat egiten ditu. San Valentín da Nagoreren gutunaren abiapuntu. Egunaren arruntasuna alda-

rrikatuz joko bat proposatzen dio bere pottoka maiteari: herriko leku jakin batzuetatik abiatzeko agintzen dio, bide batez

elkarrekin bizi izandako pasadizoak gogoratu, eta azkenean sorpresa bat eskainiko dio, hondartzaren azken muturrean elkartuz.

**BERGARAKO GUTUN ONENA**  
Bergarako gutun onenaren saria (150 euro) Oier Bolibarrek jaso du. 29 urte ditu eta bizitzak heriotzari eta heriotzak bizitzari idatzitako gutuna egin du. Izan ere, biak dira banaezinak, osagarri eta ezinbesteko. Epaimahaiak azpimarratu du Oierren gutunak duen izugarritzko lana. "Izugarrizko lana dago bertan. Edukia eta forma primeran uztartzen ditu". Bestalde, gutunaren diseinua ere nabarmendu dute: "Gutunaren diseinuak garrantzi handia dauka, oso bisuala da".

SMS bidezko mezu irabazlea

EIDER ANDRES | PORTUGALETE | 19 URTE

Laugarren edizioa bete du SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketak. Eider Andres 19 urteko portugalearrak irabazi du, honako mezuarekin: "Ene pentsamenduak betetzen dituzulako, zure alboan berezi sentitzen naizelako, gauero zugaz amesten dudalako, ohean ondo baino hobeto pasatzen dugulako, MAITE ZAITUT".



Aurten 112 gutun jaso dira eta lehiaketaren 14 aldietan 2.027

Emakumezkoen parte-hartzea handiagoa izan da: %70, hain zuzen

Epaimahaiak irabazle eta finalisten maila handia azpimarratu du

Sari ematea, ohiturari jarraituz, San Valentín egunean izango da, otsailaren 14an

Bergarako gutun onena

OIER BOLIBAR | BERGARA | 29 URTE

Heriotzak bizitzari

**N**ahi nuke izan, ez bait naizelako ez daukat izaterik. Zure izana da nire ez izatearen guraria naizena izateari utzi, eta zerbait izateko, izan nahi dut.

Bizitzaz at nagoelako zara zu bizitza, bizi ez naizelako zara.

Ez duzu izaterik nire izaterik gabe, eta ez daukat izaterik zure ez izaterik gabe,

nire alboan behar zaitut, hotzak argia irentsi baino lehenago, denborak muga izan aurretik, sentitu beharra nauzu zarena izaten jarraitzeko.

Zure itzala naiz, zure argiaren itzal iluna, ezin naiz zuek banandu, zure zaitudalako.

Zu bizi zarelako naiz ni herio, argia itzaltzean dena baita itzal.

Gutunaren pasarte bat.

Irakurle gazteek emandako saria

NEREA URTZELAI | BERGARA | 17 URTE

Kaixo Axier,

**E**uria ari du, izarrak triste daude eta leihoaz bestalde, haize haserretuaren hotsa entzun daiteke zu nire alboan falta zarelako.

Daramadan bakardade ilun hau uxatzeko puzzleko azken pieza zarela behin baino gehiagotan errepikatu dizut, baina errealitateari so eginda, badakit nire itxuragatik edo... ez dituzula hitzok aintzat hartzen.

Beso epel haiekin inguraturiko besarkada eman zenidan unea datorkit behin eta berriz gogora, hor zaude, begiak malkoz beteta.

Gutunaren pasarte bat.





JOSETXO ARANTZABAL

Olimplaffeko hiru kirolariak nor baino nor ibili ziren zuzi olinpikoa nork piztuko.

## Yllanakoekin asmatu egiten dela badakite Espaloikoek

*Hasieratik bukaerara ikusleen algarak eragin zituen 'Olimplaff' ikuskizunak; ume, gazte zein nagusien algarak*

**Non.** Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.  
**Zenbat jende.** Aretoa beteta.  
**Iraupena.** Ordu bat eta hoge minutu inguru.

Monika Belastegi

Ukitzen duten guztia urre bihurtzen dutela diote Yllana taldeak. Sortzen duten lan bakoitza ikusienetako bat izaten da eta baita barre algara gehien sortzen duenetako bat ere. Aktualitateko gai edo sentimenduak jorratzen

dituzte hain eurena den ikuspegi horrekin, eta egubakoitzean horietako bat ekarri zuten Elgetara. Amets galdu bat: Madril 2010, hain justu, *Olimplaff* emanaldiarekin; eta urrian gertatu bezala -666 ikuskizunarekin egon ziren- aretoa lepo bete zuten.

Eskura dituzten trikimailu guztiak erabilia podiumera iristen saiatzen diren hiru kirolari izan genituen bidelagun Espaloiko eszenatokian. Ia ordu eta erdiko lasterketan, eta barreari ezin eutsita, askotariko kirolariak ikusi genituen: waterpolo-

ko jokalaria -ia-ia *Matrix* filmeko pertsonaia bihurtuta-, alerofilia kirolaria, eta *holligan* familia ezin berezi eta barregarriagoa, turuta eta guzti.

### ARRAKASTAREN ZUZIA

Yllanaren umorea gauza askoren batura da: klowna, mimoa, gorputz-espresioa... eta horri guztiari sketch harrigarri eta oso bisualak gehituz gero, erraza da ulertzen nola pizten duten behin eta berriz kalitatearen eta arrakastaren zuzia. Horretan guztian zerikusia du publikoarekin bilatzen eta aurkitzen duten konplizitateak, ikusleak parte-hartzailerik zuzen bihurtzeraino -nahiz eta une batzuetan aurreko ilaretako ikusle batzuk estuasunean jarri-.

## Espaloian egon zirenak euren karikaturarekin itzuli ziren etxera zapatuan

*Ingurukoen barreen artean bost minutuan marraztu zituzten irudiok Bilboko bi karikatura egilek*

Monika Belastegi

Ezustekoa hartu zuten zapatu gauean askok Espaloia Kafe antzokira tragoxka hartzera joan eta bi karikatura egile aurkitu zituztenez. Batzuk marrazkilarien aulkian ere jarri ziren euren burua karikatura baten irudikatuta ikusteko. Fermin Iribarrek, Leire Kortabarriak eta espaloiko langile diren Samu eta Gorkak, behintzat, eroan zituzten etxera euren karikaturak.

Bilboko bi marrazkilariek, abilezia handia erakutsiz, bost minutuan egin zituzten karikaturok. Burua, nola ez, handia, eta gorputza, txiki-txikia egin zieten guztiei. Eta ingurukoek, barreari ezin eutsi.

23:00ak aldera hasi ziren lanean, asto banarekin, eta hamabosten bat lagun animatu ziren posatzera, 10 euroren truke.

Karikatura eskuan hartu eta gero askotariko komentarioak egin zituzten modeloek: "itsusia denarekin milagro handirik ezin egin", "halako bat bost minutuan margotzeak zaila izan behar du"... Batek edo bestek ez zuen bere burua eza-gutu marrazkian.

### HILAREN 25EAN BERRIZ

Hilaren 25ean berriz egongo dira karikatura egileak espaloian. Bien bitartean 25 pertsonaia ezagunen karikaturak laga dituzte ikusgai Espaloian.

Otsailaren 25ean berriz etorriko dira Espaloia Kafe Antzokira karikatura egileak



JOSETXO ARANTZABAL

Buru handi-handia eta gorputz txiki-txikia egin zieten modeloei.



### PIANOA | ARRASATE MUSIKALEKO IKASLEEN EMANALDI BIKOITZA

Arrasate Musikaleko piano ikasleek kontzertua egin zuten zapatuan Andoainan. Ikasle hauek parte hartu zuten: Mikel Barquero, Sara Larrabe, Leire Retegi, Maitane Mayor, June Ortiz de Landaluze, Natalia Ortiz de Landaluze, Elena Azkarragaurizar, Leire Estevez, Kevin Teran, Danel Ramirez, Lorea Church eta Maddalen Martinezek. Beroketa ariketa gisa, egubakoitzean ere emanaldia egin zuten eskolan. | M.B.



### EUSKAL HERRIKO TRESNAK | ERAKUSKETA IBARRAUNDI MUSEOAN

Euskal Herriko musika tresnen erakusketa zabaldu berri dute Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Hainbat urtetan barrena Lorentxo Altube arrasatearrak egindako bilduma da, orain Eskoriatzako Udalaren eskuetan dagoena. Hilaren 16ra bitartean egongo da ikusgai astelehenetik egubakoitzera 17:30etik 19:30era eta zapatu eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara | A.G.



# Debagoieneko WEBGUNEAK



## AHOLKULARITZAK

**ESTRADOS**  
www.consultoria.estrados.com

## ANTZINAKO ALTZARIAK

**ZUMADIA**  
www.zumadia.com

## AKADEMIAK

**BASTIDA**  
www.bastida.es

## ALTZARIAK ETA APAINKETAK

**BZ SISTEMAS**  
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

**MARRUBI**  
www.marrubi.com

## AROSZTEGIAK

**ARREGI**  
www.goiena.net/blogak/arregi

**AZKARATE**  
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ASEGURUAK

**WINTERHUR**  
www.winterhur.es

## AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA

**AUTOS RIBEGOLA –BMW-**  
www.autos-ribegola.com

**GALLASTEGI MOTOR SPORT**  
www.goiena.net/blogak/gallastegi

## AUTO-KONTZESIONARIOAK

**QUATTRO 4**  
www.goiena.net/blogak/4quattro4

## BIDAIA AGENTZIAK

**BARCELO**  
www.barceloviajes.com

## BITXITEGI TAILERRA

**OSCAR VITORIA**  
www.goiena.net/blogak/vitoria

## ELEKTRIZITATE MATERIALAK

**SETALDE**  
www.setalde.com

## ERROTULOAK

**PANDO**  
www.goiena.net/blogak/pando

## ESTETIKA ZENTROAK

**GUZTIZ EDER**  
www.goiena.net/blogak/guztizeder

**LILURA**  
www.lilura.com

**ANGELA**  
www.angelaestetika.net

## GIMNASIOAK

**IRUDI SPORT**  
www.goiena.net/blogak/irudisport

## HAUR PARKEAK

**OKIPARK S.L.**  
www.goiena.net/blogak/okipark

## HIZKUNTZA AKADEMIAK

**CIM-OÑATI BAI & BY**  
www.cim-idiomas.com

## HOTELAK

**HOTEL MONDRAGON**  
www.hotelmondragon.com

## INFORMATIKA

**DCA COMPANY**  
www.dccompany.com

## INGENIARI GEOLOGIKOA

**HARRILUR**  
www.harrilur.com

## INMOBILIARIAK

**ANBOTO**  
www.inmoarrasate.com

**ARRIETA & SAN MIGUEL**  
www.arrietasanmiguel.com

**KOROSTI**  
www.inmokorosti-com

**UDALATX**  
www.goiena.net/blogak/udalatx

## JANTZI DENDAK

**UDALAITZ**  
www.goiena.net/blogak/udalaitz

## JATETXEAK

**BASTER-ALDE**  
www.baster-alde.com

**DRAGON ORIENTAL**  
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

## LANTEGI ETA TAILERRAK

**TALLERES CARPinsa S.L.**  
www.carpinsa.com

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**  
www.goiena.net/blogak/argi-plastik

## OINETAKOAK

**KORO ZABALETA**  
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

## OPARIAK

**MERKEOPARI**  
www.goiena.net/blogak/merkeopari

## OPTIKAK

**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**  
www.goiena.net/blogak/multiopticas

## OSTALARITZA

**GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK**  
www.goiena.net/blogak/garaia

## PUBLIZITATE AGENTZIAK

**ADOX**  
www.adoxnet.com

## TABERNAK

**EZKUTU**  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

**ORLY**  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

## TAXIAK

**GORKA GARAI**  
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

## UDAL ZERBITZUAK

**GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA**  
www.aizue.com

## ZERBITZU DIGITALAK

**ATAI**  
www.goiena.net/blogak/atai

Bisita ezazu:  
[www.goiena.net/merkatua](http://www.goiena.net/merkatua)

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu **943 71 23 91** zenbakira.



ROCK I  
**MUSIKHERRIA**

## Musikherriaren eskaintza geroz eta ezagunagoa egiten ari da

**Non.** Arrasateko gaztetxean.  
**Antolatzailea.** Arrasateko Gazte Asanblada eta Musikherria.  
**Zenbat jende.** 50 bat lagun.

Asteleheneko Goienkaria

Ekimen berria eta berritzailea da Musikherria herri diskoetxeak euskal eszenara dakarrena. Taldeen autoekoizpena eta musika-rekin konpromisoa ditu ikur ekimenak, eta horren hiru erakusgarri izan ziren zapatu gauean Arrasateko Gaztetxean: BKBO, All Jazz Era eta Lukas Priest; Maule, Uribe-kosta eta Eskoriatzako hiru talde, bakoitza bere musika motarekin baina Musikherriak dakarren eskaintza berriaren erakusgarri ere badirenak. Guztietan berritzaileenak edo ezberdinenak bizkaitarrak izan ziren. Jazz-a eta pop-a bateratuz emanaldi interesgarria egin zuten zapatuan, Maulekoen, eta, zalantzarik gabe, eskoriatzarren zuzeneko gogotsuei inondik inori meriturik kendu gabe.



All Jazz Era, Uribe-kostatik.



JOSETXO ARANTZABAL

METAL I **ERASO! ETA ANGER**

## Hasieretako metal soinu indartsura itzulita, egurra emateko prest etorri ziren Eraso! taldekoak egubakoitzean

*Arrasateko Anger taldeak ere disko berria aurkeztu zuen 3.60 aretoan, metalaren beste ikuskera batekin*

Jon Berezibar

Zarauztarrak adierazteko askatasunari oihuka, eta arrasatearrak askatzeko adierazpenetan, gitarra indartsuek egin zuten mezuaren bitarteko lana eguba-

koitzekoan 3.60 aretoan. Euskal metal berriaren bi alderdi erakutsi zituzten bi taldeek, eta esateko asko daukatela argi utzi gura izan zuten.

Disko berriarekin eta konbentzionalismoak astintzeko inoiz baino prestuago, arrasatearrek ekin zioten gauari. Indartsu heldu zieten *Biluztu* laneko abestiei. Tinko eta gogotsu, Angerrek bere izaerari eutsi zion emanaldi guztian.

Konbentzimentu berberarekin oholtzaratu ziren Eraso!-koak jarraian. Hasieretako metal

gogor eta zorrotza berreskuratuta, soinu garden eta zurrungo baten mesedetan. Gitarra basatiak eta Sergioren eztarri sakona ikur, euskal metalean daukaten lekua zergatik betetzen duten argi utzi zuten.

**Gitarra basatiak eta Sergioren eztarri sakona dituzte ikur Eraso!-koek**

**METALZALEAK**

Erritmo sendoekin eta *Kontra* diskoa zanpateko batekin irekitzen duen *Aurrera* abestiarekin hasi, eta ordu eta erdiko joaldia egin zuten zarauztarrek. Arrasaten metalzale ugari badago ere, ez zen jende gehiegi animatu egubakoitzean, baina zalerik ez zen falta izan. Zarauztarrak izan arren harreman handia daukate arrasatearrek eta lagunarteko kontzertua izan zen azken finean. Lagunarte hartan musikariak ere gustura zeudela igaritzen zen.

## 'Sonata Do minor'-en izan zen izarra

Monika Belastegi

Kontzertu polit eta gustagarria egin zuen zapatuan Giulio Mercati organo-jotzaileak Bergarako San Pedro parrokian. Musikari gaztea -34 urte ditu- sentimendu handiz eta gogotsu aritu zen batutako 150 bat entzuleren aurrean.

Bost obra egin zituen italiarrek, nabarmenena, zalantza barik, hirugarrena: J. Reubke konposatzailearen *Sonata Do minore*n. Obra luzea da -ordu erdiko iraupena du-, musikalki oso aberatsa, eta teknikoki neke-

za. Horrekin guztiarekin, eduki interpretatu zuen Mercatik organoan.

**HURRENGO EMANALDIA OTSAILAREN 11N**

Organo erromantiko jaialdiaren hurrengo emanaldia datorren zapatuan izango da, otsailaren 11n. Jose Enrique Ayarra organo-jotzaileak egingo du. Zazpi obrako emanaldia egingo du, tartean, J. S. Bach, B. Iniguez eta E. Torresen lanak. Ohi bezala, San Pedro parrokian izango da, 20:00etan.



Organo-jotzaile gaztea sentimendu handiz eta gogotsu aritu zen.

JOSETXO ARANTZABAL



## Koldo Eleizalde literatura lehiaketan 2.170 euro banatuko dituzte saritan

*Hamasei diru-sari dituzte lau kategorietako irabazleei banatzeko, eta ikas-materialez osatutako sariak*

Leire Kortabarria

Koldo Eleizalde lehiaketan 21. edizioak 2.170 euro eta hainbat opari banatuko ditu saritan. Edizio hau Bergarako Udal Euskara Sailak antolatu du, Kutxak eta Goierna kooperatibak lagunduta.

Lau kategoria daude: ipuina (110, 80, 60, 275, 210 eta 150 euroko sari bana, eta ikas-materialez osatutako 9 sari), bertsoak (90, 175, 60 eta 90 euroko sari bana, eta ikas-materialeko bi sari), komiki-tira (90, 60, 150 eta 90 euroko sari bana eta ikas-materialeko bi sari) eta ipuin-kontaketa edo antzerkia (275 eta 210 euroko sari bana eta lau opari). Komiki eta bertsoen saile-

tan, Debagoieneko edozeinek parte har dezake; gainerakoe-tan, berriz, bakarrik Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenek.

### OINARRIAK

Lanak kartazalean entregatu behar dira Bergarako Udal Euskara Zerbitzuan, goitizen sistema bidez; kartazalean, Koldo Eleizalde Lehiaketak izenburua, generoa eta saila adierazi behar dira; barruan, lanaren biko kopia eta egilearen goitizena, eta gutun-azal txikiago baten, egilearen datuak. Bakarka edo taldeka parte har daiteke, baina norberak bi generotan parte har dezake gehienez.

Lanak bidaltzeko mugaguna apirilaren 28a da.

### TALDEEI DIRULAGUNTZAK

Beste deialdi bat ere egin du Bergarako Udalak: irabazimorik gabeko kultura talde eta elkarteek dirulaguntzak eskatzeko epearena, hain zuzen ere. Martxo hasiera arte dago dirulaguntzak eskatzeko aukera. Oinarriak eta eskabide-orria udal kultura bulegoetan daude, kultura etxean.

## Labur

### III Niñoren kontzertuko sarrerak eros daitezke Bergaran eta Arrasaten

III Niño taldearen musika emanaldia izango da otsailaren 11n, zapatua, Jam aretoan, eta sarrerak 23 eurotan salduko dituzte Jamen eta Etxagin (Bergara) eta Lazkanon (Arrasate).

AEBetako talde hori New Jerseytik dator, baina latindar sustarriak ditu -partaideak hegoamerikarrak eta latindarrak dira- eta horiek rock kementsuenarekin uztartzen du, haserrez eta egonezinez betetako abestietan. *Revolution... Revolución* diskoa aurkeztuko dute. Aurretik, Infinner taldeak joko du.

### Batzuendako lekua geratzen da dantza afrikarren ikastaroan, Oñatin

Oraindik banaka bat lagunendako lekua geratzen da Oñatiko gaztelekuak antolatu duen dantza afrikarren ikastaroan. Izenematea egubakoitzean, hilak 10, bukatuko da. Interesa dutenek Gazte Informazio Bulegora jo behar dute (10:00-13:00 edo 17:00-20:00); 943 71 82 57 da telefono zenbakia, eta [gip@oinatigazteleku.com](mailto:gip@oinatigazteleku.com), e-posta helbidea.

Otsailaren 25ean eta 26an, zapatua eta domeka, egingo dute dantza afrikarren ikastaroa.

### Film labur eta animazio lehiaketa antolatu du Nontzeberrik

Bi lehiaketa antolatu ditu Nontzeberrik: batetik, II. Nontzefilm film laburren lehiaketa. Hori *online* egongo da otsailaren 22ra arte, eta film onenak Bilboko Zinema Fantastikoaren Jaialdian (FANT) emango dituzte. Argibideak [www.nontzefilm.com](http://www.nontzefilm.com) webgunean dituzte.

Bestetik, III. Nontzeflash animazio lehiaketa ere deitu dute. Martxoaren 8a arte bidal ditzakezue lanak, *swf* formatuan. Argibide gehiago [www.nontzeflash.com](http://www.nontzeflash.com) webgunean dago.

## Hitzorduetan



### IÑAKI MORENO RUIZ DE EGINOREN ARTELANAK IKUSTEKO AUKERA | Bergarako Aroztegi aretoan dago erakusketa martxo hasiera arte

Iñaki Moreno Ruiz de Eginoren (Donostia, 1953) artistak erakusketa zabaldu du Bergarako Aroztegi aretoan, eta martxoaren 5era arte izango duzue bisitatze aukera. Hauxe da ordutegia: astegunetan, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30, eta domeketan, 12:00-14:00. Lan grafiko-

ek, koadroek eta eskultura batzuek osatzen dute erakusketa.

Euskal Herrian, Espainian eta beste herrialde batzuetan erakusketak egin izan ditu. Artista ezagunen eragina jaso du, besteak beste Jorge Oteizarena.

### ZINEMA |

• **Los dos lados de la cama** filma emango dute Arrasaten Amaia antzokian emango dute film hori gaur, astelehena, 20:30ean.

• **Flores rotas** filma ikusteko aukera dago Oñatin Kultura etxeko zinema aretoan emango dute aipatutako filma gaur, astelehena, 19:30ean.

• **La terminal** filma ikusteko modua izango da Elgetan Etxi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

• **El sabor de la sandía** filma emango dute Arrasaten *El sabor de la sandía* delako filma emango dute eguenean, otsailak 9, Amaia udal antzokian, 20:30ean. Zineklub saioa izango da.

• **Paradise now** delako filma emango dute Oñatin Eguenean, hilak 9, emango dute film hori zineklub saioan, Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan, 20:00etan.

### ERAKUSKETAK |

• **Maria Dolores Lonbideren margolan erakusketa** Maria Dolores Lonbide soraluzetarraren margolan erakusketa dago Espaloia kafe antzokian otsailaren 23ra bitartean. Lonbide Donostian hasi zen margotzen ikasten, Teresa Rierarekin. Ametsen mun-

dura jotzen du inspirazio bila, eta naturako koloreak eta islak margotzea gustatzen zaio.

• **Euskal Herriko musika tresnen erakusketa** Euskal Herriko musika tresnen erakusketa dago Eskoriatzan, Ibarraundi museoan. Arrasateko Lorentzo Altubek Eskoriatzako Udalarari utzitako tresnak dira guztiak, berak urte askoan batutakoak. Hilaren 16 arte egongo da erakusketa zabalik.

### ANTZERKIA |

• **Koldo Amestoyk ipuinak kontatuko ditu Aretxabaletan** Koldo Amestoy ipuin kontalari lapurtarrak helduendako ipuinak kontatuko ditu eguenean, hilak 9, udaletxe zaharrean. Emanaldi berezia da. Loramendi euskara elkarteak antolatzen du.

### LEHIAKETAK |

• **III. Korrika-AEK beka deialdia egin dute** Euskarazko arte eszenikoak bultzatzeko, euskal sortzaile berriei bidea zabaltzeko eta jendaurrean aurkez daitezkeen lanak sortzeko, III. Korrika-AEK beka deialdia egin du AEK-k. Taulara daitekeen euskarazko lanak aurkez daitezke apirilaren 24aren eta 28aren bitartean. 29.000 euro emango dizkiote irabazleari lana ekoiz-

teko, eta 3.000 euro gehienez Korrika Kulturaleko emanaldi bakoitzeko. Argibideak, AEK euskaltegietan.

• **Emakumeak Arrasateko Historian** film labur sariketa *Emakumeak Arrasateko Historian* delako film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak. Ekaina arte dago lanak aurkezteko aukera. Argibideak, 943 79 41 39 telefonon.

### IKASTAROAK |

• **Egunkaria Internetez irakurtzearen gainekoa** *Zure egunkaria irakurri* delako mintegia emango dute eguenean, hilak 9, Antzuolako KZgunean, 17:00-18:00.

• **ViaMichelinekin bidaiatu delako Internet ikastaroa** Ikastaro hori emango dute eguaztenean, hilak 8, Aretxabaletako KZgunean, 11:00etan.

• **Hainbat mintegi emango dituzte Arrasateko KZgunean** Honako mintegiak emango dituzte: postal bat bidaltzekoa (etzi, eguaztena, 19:00) eta Messenger programaren gainekoa (eguaztena eta eguena, 09:00).

• **Oñatiko KZguneako ikastaro eta mintegi eskaintza** Honako ikastaroak emango dituzte: *Egin ezazu lan zure aurrezki kutxarekin* (astelehena eta martitzena, 18:30) eta Messenger programaren gainekoa (eguaztena, 16:30-18:30).



**Eguraldia**



**Goizean hotz galanta, baina eguerdi partean epeltze aldera egingo du**

Haizeak apur bat ekialdegotik joko du gaur, oso ahul. Laino gutxirekin, ia oskarbi egongo da. Egunsentian hotz galanta egingo du, baina eguerdirako epeltasun goxoa sortuko du eguzkiak. Behe laino askotxo egongo da, eta izotza ere bai, baina eguerdiko epeladitxo horrek asko konponduko du eguna.

Martitzenetik eguenera bitartean lainotsuagoak izango dira egunak, goiz partean, batik bat. Eta eguerdi partean epeldu egingo du eguzkiak. Eguenean, hobera egingo du eta laino altuak izango dira. Egubakoitzean lainotsu esnatuko da eguna, baina aurrera egin ahala garbitu egingo du.

**Goardiako farmaziak**

**ARRASATE**

<b>Astelehena, 6</b>	Azkoaga	Ferrerias, 1 (943 79 15 15)
<b>Martitzena, 7</b>	Azkoaga	Iturriotz, 17 (943 79 79 99)
<b>Eguztzena, 8</b>	Corcuera	Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)
<b>Eguena, 9</b>	Irizar	Erquin kalea, 11 (943 79 12 39)
<b>Egubakoitza, 10</b>	Amezua	Santa Marina, 32 (943 79 09 74)

**BERGARA**

<b>Astelehena, 6</b>	Mozos	Iparragirre 2 (943 76 12 15)
<b>Martitzena, 7</b>	Camacho	Oxirondo 4 (943 76 11 74)
<b>Eguztzena, 8</b>	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
<b>Eguena, 9</b>	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
<b>Egubakoitza, 10</b>	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)

**OÑATI**

<b>Astelehena, 6</b>	Garate	Kale Barria, 32 (943 78 105 58)
<b>Martitzena, 7</b>	Garate	Kale Barria, 32 (943 78 105 58)
<b>Eguztzena, 8</b>	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
<b>Eguena, 9</b>	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
<b>Egubakoitza, 10</b>	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)

**ARETXABALETA**

<b>Astelehena, 6</b>	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Martitzena, 7</b>	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Eguztzena, 8</b>	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Eguena, 9</b>	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Egubakoitza, 10</b>	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)

**Telefono jakingarriak**



**OSASUNA / LARRIALDIAK**

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA ( Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

Bergara	943 77 91 06	Laian / Oñati	943 71 63 11
Eskoriatza	943 71 44 07	Hondakindegia Alternatiboak	
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Arrasate	943 77 11 43
Oñati	943 78 04 11	Bergara	945 76 44 42
		Oñati	943 78 36 67

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

**Zozketak**

**BONOLOTOA**

Astelehena, 30  
4 • 16 • 20 • 24 • 39 • 46  
Osagarria: 37 | Itzulketak: 1

Martitzena, 31  
2 • 5 • 16 • 20 • 34 • 43  
Osagarria: 46 | Itzulketak: 0

Eguztzena, 1  
2 • 3 • 21 • 30 • 31 • 47  
Osagarria: 33 | Itzulketak: 2

Egubakoitza, 3  
12 • 13 • 15 • 16 • 41 • 46  
Osagarria: 33 | Itzulketak: 6

**ONCE**

Astelehena, 30 **69.462**

Martitzena, 31 **77.084**

Eguztzena, 1 **13.230**

Eguena, 2 **13.079**

Egubakoitza, 3 **70.110**

Kupoitzarra (104 seriea)

Domeka 5 **72.157**

Kupoitzarra (006 seriea)

**LOTERIA PRIMITIBOA**

Eguena, 2  
2 • 8 • 12 • 13 • 18 • 31  
Osagarria: 15 | Itzulketak: 1

Zapatua, 4  
6 • 10 • 21 • 23 • 24 • 37  
Osagarria: 19 | Itzulketak: 7

Zapatua, 4 (Saritzarra)  
1 • 3 • 15 • 32 • 36  
Itzulketak: 5

**Gazte zerbitzuak**

**EKINTZAK |**  
• **'Ipuinartean'**. Eibarko Udala. Urtarrilaren 27tik otsailaren 28ra. *Ipuinartean* I erakusketa. Helburua da kultura desberdinen isla diren ipuin tradizionalak ezagutaraztea.

**IKASTARROAK |**  
• **Lorezaintza, elektrizitatea, igeltserotza.** Fondo Formación Euskadi. 120-240 orduko ikastaroak. Doan. Praktikak bermatuta daude. Epea: ezberdinak.

**LEHIAKETAK |**  
• **Arte Plastikoa.** Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala UHUN-UNED. Teknika eta estiloa egilearen hautuak dira. Euskarriak bi dimentsiokoa izan beharko du. Epea: otsailaren 20tik 24ra.

• **Martxoak 8ko kartel lehiaketa.** Arrasateko Udala. Emakumearen nazioarteko eguna iragartzeko bederatzigarren kartel lehiaketa antolatu du Udalak. Aurtengo leloa hau da: *Zainduak izateko eskubidea eta emakumeen intsumisioa.* Epea: otsailak 17.

**LANA |**  
• **Obra eta Zerbitzuetako burua.** Bergarako Udala. Aparejadore edo Arkitekto Tekniko titulua edo Obra Publikoetako Ingeniari Teknikoa behar dira. Euskarazko 4. hizkuntza eskakizuna. Epea: otsailak 8.  
• **Teknikaria.** Altsasuko Udala. Aukera berdintasuneko Teknikari lanpostu bat. Diplomatu izan behar da. Epea: otsailak 24.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**  
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65  
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net  
**BERGARAKO GAZTEENDAKO**  
**INFORMAZIO GUNEA:**  
Kultura etxea. 943 77 91 57  
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO**  
**INFORMAZIO GUNEA:**  
Foruen plaza 4. 943 71 82 57  
gip@oinatigazteleku.com



Bertan salgai

ASTELEHENKO

# Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

**Antzuola:**

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

**Elgeta:**

- Kioskoa

**Bergara:**

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

**Arrasate:**

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

**Aretxabaleta:**

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

**Eskoriatza:**

- Dorleta liburudenda

**Leintz Gatzaga:**

- Labidea

**Aramaio:**

- Plazako kioskoa

**Oñati:**

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia



**Zorion agurrak**



ARRASATE  
**Irene Salaberri**  
Urtarrilaren 20an,  
4 urte. Zorionak,  
Arizmendiko Sanvi  
Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Leire Carrascoa**  
Urtarrilaren 24an, 3  
urte. Zorionak!  
Arizmendiko Sanvi  
Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Ainhoa Urrea**  
Otsailaren 1ean, 4  
urte. Zorionak,  
Arizmendiko Sanvi  
Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Edurne Sagasta**  
Otsailaren 2an, 14  
urte. Zorionak!  
Koadrilakoan  
partetik.



ARRASATE  
**Monika Bastida**  
Otsailaren 6an, 26  
urte. Zorionak eta  
urte askotarako  
Lagun ezkutua.



ARRASATE  
**Naia Ijurra**  
Otsailaren 8an. 5  
urte. Zorionak  
Aitor, Izar, Josu eta  
Eiderrren partez.



ARRASATE  
**Jorge Davila**  
Otsailaren 9an,  
28 urte.  
Zorionak!!!  
Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Janire Davila**  
Otsailaren 9an,  
2 urte.  
Zorionak!!  
Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Gaizka Zabaleta**  
Otsailaren 10ean,  
urtebetetzea.  
Zorionak! Gurasoak  
eta arreba Leire.



BERGARA  
**Mikel Iglesias**  
Otsailaren 2an, 1  
urte. Urte askotara-  
ko! Gurasoak eta  
Malen.



BERGARA  
**Danel Murgiondo**  
Otsailaren 6an, 6  
urte. Urte askotara-  
ko! Etxekoak eta  
Uxue.



BERGARA  
**Jone Murgiondo**  
Otsailaren 6an, 6  
urte. Urte askotara-  
ko! Etxekoak eta  
Uxue.



BERGARA  
**Oihane Agirre**  
Otsailaren 6an, 1  
urte. Zorionak eta  
urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Gorka Kortabarria**  
Otsailaren 7an, 8  
urte. Zorionak eta  
urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Andoni Gallastegi**  
Otsailaren 7an,  
10 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak.



BERGARA  
**Maria Agirrezabal**  
Otsailaren 8an, 8  
urte. Urte askotara-  
ko! Etxekoak eta  
Elisa.



ARETXABALETA  
**Beñat Ganboa**  
Otsailaren 8an, 9  
urte. Zorionak!  
lonen eta gurasoen  
partetik.



ARETXABALETA  
**Ainara Zugasti**  
Otsailaren 4an, 4  
urte. Zorionak eta  
muxu handi bat.  
Etxekoak.



ARETXABALETA  
**Joanes Sarasua**  
Otsailaren 4an, 6  
urte. Mundiala zara!  
Kilo bat muxu.  
Gurasoak eta Danel.



ARETXABALETA  
**Oxel Vazquez**  
Otsailaren 10ean, 9  
urte. Zorionak eta  
urte askotarako.  
Gurasoak eta anaia.




ARETXABALETA  
**Nerea Olmedo**  
Otsailaren 12an, 24  
urte. Zorionak eta  
muxu handi bat.  
Lore eta Maren.



ESKORIAITZA  
**Antoni Regaño**  
Otsailaren 2an  
urteak. Zorionak!  
Eskoriatzako saski-  
baloiko neskek.




ESKORIAITZA  
**Mikel Beloki**  
Otsailaren 2an,  
11 urte. Zorionak  
eta muxu bat etxe-  
koen partez.



OÑATI  
**Ainhoa Aranburu**  
Otsailaren 6an,  
26 urte. Zorionak  
eta urte askotarako.  
Lagunak.



OÑATI  
**Haritz Arregi**  
Otsailaren 6an,  
2 urte. Zure arreba  
Oihana eta gurasoen  
partetik zorionak.



OÑATI  
**Maider Molinero Larrea**  
Otsailaren 8an,  
urtebete. Zorionak  
printzesa!



OÑATI  
**Maddi Arlanzon**  
Otsailaren 9an, 2  
urte. Zorionak!  
Etxekoak: Endika,  
Anje eta Danel.



ELGETA  
**Dani Gillegi**  
Otsailaren 1ean  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Lagunak.



ELGETA  
**Oskar Askasibar**  
Otsailaren 12an,  
urte bat gehiago.  
Zorionak eta muxu  
handi bat. Lagunak.

**Zorionak!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!  
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederra!

**Zoriondu ARRASATE IRRATIAN**



**Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, ARRASATE IRRATIAK egunero ematen dizu aukera hori.**

**Bidali eskaria:**  
*irratia@goiena.com* helbidera  
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.


Egunero,  
zorion agurren tartea  
**ARRASATE IRRATIAN**

**FM107.7**  
**ARRASATE IRRATIA**

**Jaiotakoak**



**Uxue Gurrutxaga Aranguren**  
Bergara • 2,300 Kg. Urtarrilak 29.  
Gurasoak: Irantzun (Bergara) eta  
Aitor (Urretxu).  
Argazkian:  
Uxue amaren besoetan.



**Maiuri Lasaga Mateo**  
Aramaio • 3,600 Kg. Otsailak 3.  
Gurasoak: Lurdes (Aramaio) eta  
Iñaki (Aretxabaleta).  
Argazkian:  
Maiuri bapo lo kuman.




**Maren Tena Hidalgo**  
Arrasate • 3,200 Kg. Otsailak 4.  
Gurasoak: Rosa eta Antonio  
(Arrasate).  
Argazkian:  
Maren amaren besoetan.

**Hildakoak**

**Ines Davila Sanchez**  
Bergaran, otsailaren 2an. 81 urte.  
**Jose Mari Lopez Jover**  
Arrasaten, otsailaren 3an. 86 urte.

**Juan Jose Letona Ugarte**  
Arrasaten, otsailaren 3an. 58 urte.  
**Maite Mayo Larrea**  
Bergaran, otsailaren 5ean. 74 urte.



**ESKELAK**  
ASTELEHENEKO  
GOIENKARIAN

85 euro  
**943 25 05 01**



**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo autobusera' | 11:30

**Arrasateko Doke antzerki taldea**

Doke antzerki taldea zertan ari den jakin ahal izango dugu. Gabonetarako antzezlanaren prestakuntza hasiak dira eta aktore lanetarako jende bila dabilta. Mariasun Pagoaga, Doke taldeko presidentea, izango da horren guztiaren berri ematen.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Egurdiko saioa' | 12:30

**Arantzazu Ibarrodori elkarrizketa**

Arantzazu Ibarrodori oñatiarra eta Felipe Uriarte Aconcaguan izan dira. Hain zuzen ere, gailurra egin zuten joan zen urtarrilaren 11n. Hala, Argentinan aldean izandako esperientziaz mintzatuko da Miren Urkiola kazetariarekin.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 10:30

**'e-mod' akademiakoekin berbetan**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 10:30

**Basurdeek eragindako kalteak aztergai**

**Herri Irratia**


FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

**Eibarko immigrazio planaren gainean berbetan**

**GOITB programazioa**

Astelehena, 6



**'Harmailatik' saioan, ibarreko taldeak 21:15**

Julen Iriondo kazetari oñatiarraren eskutik ibarreko kirol taldeen ibilbidea jarraituko dugu. Aste bukaerako partiduen irudi onenak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka: Argentina.
- 15:30 MI. Eguraldia eta burtsa tartea.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Jaun ta jabe.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Jazz zirkloa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Martitzena, 7



**'Berbaire', Marijo Deograsiaren saioa 22:15**

Marijo Deograsi aurkezlearekin Maite Aristegi, Jon Molina eta Joserra Elortza izango dira. Gaurkotasuneko gaiei gainbegiratua egingo diete.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea: Legartzako urtegia
- 18:15 Munduari bueltaka. Argentina.
- 18:45 Albisteak
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Ilunpean.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 8



**'El salto de Beamon' film laburra 22:15**

Ane Muñoz hondarribiarraren *El salto de Beamon* film laburra 16 mm saioan. Amagoia Lasagabasterrek Ane Muñoz elkarrizketatuko du.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio eta Motzean: Estitxu Fernandez.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16 mm.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 16 mm: *El salto de Beamon*.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Eguena, 9



**Iñaki Ugarte, 'Didjeridu' saioan 22:15**

Iñaki Ugarte Aloña Mendi futbol taldeko masaje-emalea elkarrizketatu dute oraingo astean. Taldearen gaineko azalpenak emango dizkigu.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Jaun ta Jabe.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz mintegia.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 16mm.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparorratza: Danubio.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Erreportajea: Santxotena museoa.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Jaun ta jabe.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Berbaire.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 10




**Debagoieneko albisteak 19:45**

Egunean zehar gertatutakoak jorratuko dituzte eguneroko albistegietan. Deiane Arrieta eta Julen Iriondo izango dira aurkezle lanetan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparorratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz mintegia.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak
- 17:00 Berbaire
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak
- 20:45 Albisteak
- 21:15 Behazulo: Arcelor
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 16 mm.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

**Kamera aurrean**



**"CIU alderdiaren jarrera ez da zuzenena izan, estatu hitzarmena sinatu nahi izan dutelako"**

XABIER ARZALLUZ |  
EAJ-KO PRESIDENTE OHIA  
Berriak, 2006-02-03



**"Arrasate Press' ilusioz sortu genuen eta gerora balio izan du gainerako toki aldizkariak sortzeko"**

JOXE ARANTZABAL |  
MU-KO IRAKASLEA  
Berriak, 2006-02-03

**'El salto de Beamon',  
Ane Muñozen film laburra**

'16 mm' saioa

Eguaztenean, azaroaren 30ean, 22:15ean

Aurkezlea: Amagoia Lasagabaster



**Ikustekoa!**



Otsailak 6a: 73 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 6, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

**Harpidetza kuota, 35 euro**

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.  
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Jose Luis Arantzeta Arregi (Elgeta)
- Maider Goya Elkoro (Aretxabaleta)

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Gorka Gisasola Perez (Bergara)
- Ana Mari Lizarralde Heriz (Arrasate)

## Otsailaren 13ko sariak



- Otsailaren 17an ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN izango den PIZTIAK taldearen kontzerturako lau gonbidapen (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

## EIBAR-NASTIC TARRAGONA

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)







## Hamarrekoa

JON MAIA | BERTSOLARIA

### "Gatz puntua harrapatzea da mariskoa ondo prestatzeko sekretu bakarra"

Oihana Elortza

**1. Non dago Karidadeko benta?** Villabona eta Aduna alde horretan egon zen urtetan benta hori. Bertsolari asko batzen ziren han bertsoan egiteko, afariak egiteko edo abesteko. Ardoa, afaria, kantua eta bertsoa bat datoz gure filosofia-rekin, eta izen horixe hartzea pentsatu genuen.

**2. Eta zer moduz zabilzate?** Oso ondo. Duela bost bat urte hasi ginen, intentzio handirik gabe, egia esatearren. Baina ahoz asko zabaldu zen gure berri eta kontzertuak ematen hasi ginen. Pozgarria da ikustea jendea zure kantuak jakinda doala kontzertuetara.

**3. Zapi bat eramaten eiz duzu beti, lepoan edo eskumuturrean. Look-a da edo zortea ematen dizu?** Look-atik da; bertsolari itxuratik bereiztu gura dut neure burua taldearekin nagonean. Gainera, bi zapi erabiltzen ditut normalean, bata lepoan eta eskumuturrean bestea. Hiruzpalau zapi ditut eta aldatu egiten ditut, normalean ez ditut inoiz berdinak topatzen eta.

**4. Bertsotan bezain astiro abesten duzu taldearekin?** Bertsotan nork bere erritmora abesten du, gura duen moduan. Taldearekin, ordea, ezberdina da. Ari naiz ikasten.

**5. Lagunak kokoteraino jarri zirenean atera zenuen gidabaimena?** 100 bertso saio baino gehiago egin ditut gidatzeko baimenik gabe; eta bai, lagunak kokoteraino jarri ziren, normala den moduan.

**6. Abantailak edo desabantailak ditu altua izateak?** Disimuluan pasa gura baduzu, behintzat, ez du laguntzen. Eta ez zara eroso sentitzen pentsatzean kontzertu edo ikuskizun baten atzekoari traba egiten diozula. Alde onak ere baditu, hala ere.

**7. Joaten zara oraindik Gasteizera?** Zortzi urtez bizi izan nintzen han eta orain noizean behin joaten naiz, deitzen didatenean.

**8. Arrantzara edo arraunera joaten zara itsasora?** Bietara. Haitzetan ibiltzen naiz mariskoa arran-



Karidadeko Bentako lagunekin izan zen Jon Maia Aramaion egubakoitzean. Bertso txapelketa hasi zenetik geldi egon da taldea, baina berriro hasi dira ikuskizuna han eta hemen egiten. Udazkenerako atera gura dute, gainera, bigarren diskoa. Duela gutxi Riomundo liburua idatzi du. Astebetean 3.000 ale saldu zituzten eta hiru garren edizioa martxan da dagoeneko.

tzatzen. Oso hondartza-zalea ere banaiz, eta udan ia egunero hartzen dut bainua.

**9. Nola prestatzen duzu mariskoa?** Erraza da: egosi bakarrik egin

behar da. Gatzaren puntua hartzea da sekretu bakarra.

**10. Zenbat liburu sinatu dituzu?** Askotatu dituzte. Harrituta nago izan duen harrera onagatik.



### Biharamuna

Eñaut Arriaran

### Ongi etorri etxera

Egubakoitzean, zazpiak aldera, oholta inprobisatu bat jarri zuten udaletzeko arkupeetan, Arrasateko plaza nagusiari begira. Ordu horretan Gaizka eta Gorka igo ziren oholta horretara, jasan duten bahiketaren azkena iragartzeko asmoz. Herriko plaza bete egin zen. Bete egin zen pertsona eta ikurrinaz. Plaza bete egin zen estimazio adierazpenez. Herriaren erdigunea bete egin zen maitasun keinuaz. Gutxitan ikusten dira horrelako besarkadak. Lagunaren, ahaidearen lasaitasun besarkadak. Oilo-ipurdia jarri zitzaizkidan hamaika aldiz, hamaika laztan eta gero. Zenbat muxu eman zenituzten eta zein ederrak guztiak ere. Orain etxean zaudete eta horregatik, ongi etorri etxera.

Ederto gogoratzen dut eraman zituzten egun hura. Hedabide (eta ez komunikabide) gehienek hamaika puxtari banatu zituzten polizia eta juezen artean. Gaur, hedabideok ez dute notizia hau hedatu. Ez dute zabaldu. Ez diote Gaizka eta Gorka etxean daudenik. Hala ere, herria zuekin egon zen egubakoitzean eta zuek etxean zaudete.

Bazterrak nahastuta daude azkenaldian geurean. Goienkariako gutunen tartea ere egubakoitzetik egubakoitzera beroago dago. Gure herria, gure bailara, Euskararen Herri guztia, leher-tu beharrean daude. Ez dakit ba, Santa Agedako koplariak ez dioten abestu aurten Euskal Herriko martiriari urak baretu ditzan. Abestu behintzat, gogotik abestu zituzten koplak eta bertso ugari zapatuan, hemen eta han.

**smsoinu**  
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA  
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA  
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA  
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767  
zenbakira

Deiaren prezioa:  
1,2 € + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

#### OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)  
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jaisiera bakarrak ordaindu behar duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sistemaren alta ematea doan dira.  
\* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / \*\* Vodafone: deitu 123-ra. / \*\* Movistar: deitu 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileak eskura dezatela nahit baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

#### ABESTIAK POLIFOKOAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abestiaria) | KODEA

**Himnoak**  
Eibar | EIBAR  
Athletic Club | BILBAO  
Osasuna | OSASUNA  
Reala | REAL

**Pop-Rock**  
Aitorrena | AITORMENA  
Aizkolari | AIZKO  
Amore amore | AMORE  
Begiak okertuta | BEGIAK  
Bi Minutero | BIMINU  
Dub manifest | DUB  
Eguzker | EGUNERO  
EH Sukarra | SUKAR  
Eos dicen mierda, nosotros amen | ELLOS  
Enamorado de la muerte | ENAMO  
Etorzikuna | ETORKI

Ezer ez da betiko | EZER  
Gora Herria | GORA  
Hator Bel-Air | BELAIR  
Haizea | HAIZEA  
Hegal egiten | HEGAL  
Ikusi | IKUSI  
Nargia | NARGIA  
Inperuen ate joko | INPER  
Jokin Urain hitzak | JOKIN  
Kaixo | KAIXO  
Lau Teikatu | ITOIZLAU  
Laztana | LAZTAN  
Lotuta egon arren | LOTUTA  
Loretoxa | LORE  
Marea Gora | LMAREA  
Musturrek sartunde | MUSTURREK  
Nicaragua | NICAR  
No time for love | NOTIME

Salve | SALVE  
Sari Sari | SARRI  
Sorginen leizean | SORGIN  
Txabon | TXABON  
Txus | TXUS

**Trikitixa**  
Bexamelak pasta | BEXAMELA  
Bokespok | BOKESPOK  
Hik lan eta nik | HIK  
Itsas ontzi baten | ITSAS  
Kupela | KUPELA  
Mila galdera | MILA  
Nirekin | NIREKIN  
Ny Hirahira | NYHIRAHIRA  
Txanpon baten truke | TXANPON

**Folk**  
Arratsalde honetan | ISOROTAN  
Bai euskarari | BAI  
Bakezaleak | BAKEZALEAK  
Bizkaia Maite | BIZKAIA  
Eperrak | EPERRAK  
Euskal Herria | EUSKAL  
Euskaldun berriena | EUSKALDUN  
Ez da posible | POSIBLE  
Furra | FURRA  
Galizara noa | GALIZARA  
Gernikako Arbola | GERNIKAKO  
Haika Muri | HAIKA  
Izarren hautsa | IZARREN  
Lepoan hartu | LEPOAN  
Marinelaren zai | MARINE  
Nere herriko neska | NERE  
Non geratzen den denbora | NON

O! Ama Euskal Herria | OIAMA  
Tirauki | TIRAIKI  
Txabamabaitzabai | TXABAMABAITZABAI  
Txoria txori | TXORIA  
Zaindu maite duzun hori | ZAINDU

**Herrikoia**  
Bagare | BAGARE  
Desde Santurce a Bilbao | DESDE  
Ikusi Mendizaleak | IMENDI  
Pintxo-pintxo | PINTXO  
San Simon eta San Judas | SAN  
**Jaietakoak**  
Artilleria dale fuego | ARTILLERO  
Marijia | MARIJIA  
San Fermi | FERMIN  
San Martzialako aldea | SAN MARTZIAL

#### SOINUAK (2 sms)

Soinu izena | KODEA  
1,2,3,4...Real! | REAL  
Athletic leup!! | IEUP  
Buztan bertsoa | BERTSO  
Hartu... Aitaren ta semea... | AITAREN  
Hartu... Ansar | ANSAR  
Hartu... Argentinara | ARGEN  
Hartu... Mexikarra | MEXIKO  
Hartu... Miami | MIAMI  
Independentsial | INDEPEN  
Irrintzia | IRRINTZIA  
Jotake irabazi arte! | JOTAKE  
Milazu! (pilota) | MILAZU  
Txalaparta | TXALAPA  
Txoxtu | TXOTX

